Beharbada ikasketa-lan hori dela-eta, txotxongilolari berriek zuzenean ikasten dutelako aurreko belaunaldikoengandik; beharbada erretiratu edo hil diren txotxongilolariei erosten zaizkielako panpinak, edo beste inguruabar sozial eta kultural batzuk direla-eta, kontua da Kataluniako txotxongiloek oinarri komun bitxi bat dutela elkarrekin. Hasiera batean zaila da zehaztea nork egin dituen konpainia jakin baten panpinak, gehienak egikera ederrekoak. Dela tailugile trebeei eskatu zitzaizkielako, dela lanbideko kideei erosi zitzaizkielako, batzuetan, oso aspaldiko kideei. Den-denek mihi izeneko tresna bat erabiltzen zuten ahotsaren distortsio tipikoa sortzeko. Antzeko erreperorioa dute, eta lan asko bat datoz, izenburu batekin edo beste batekin. Saiok egitura bera izaten dute. Pertsonaia batzuk oso antzera mugitzen dira. Baina egia da, konpainia arteko tirabira eta ika-mikak gorabehera, den-denek maisu handizat ezagutzen dutela Juli Pi. Eta hala aitortu zuten, bereziki, Juli Pi maisuari dagokionez, *Teatre Catalá* aldizkari prestigiotsuak *titellei* (txotxongilo) eskainitako zenbaki monografikoan, Adriá Gual-en artikulua batekin (26 zk., 1912/08/24). Joan Amadesek argi eta garbi deskribatu zuen oinarri komun hura:

Quizá sea esta labor de aprendizaje, donde los nuevos titiriteros aprenden directamente de los de la generación anterior, quizá sea la compra de los muñecos a los titiriteros que se retiran o mueren, u otras circunstancias sociales y culturales las que han hecho que los títeres catalanes tengan un extraño fondo común. De entrada, es difícil determinar de quién son los muñecos de una determinada compañía, la mayor parte de muy buena factura, porque bien fueron encargados a hábiles tallistas o fueron comprados a compañeros de profesión, en ocasiones de tiempo muy anterior. Todos actuaban con lengüeta para producir la típica distorsión de la voz. Tienen un repertorio similar, en el que coinciden muchas de las obras, con el mismo título o con otro. Las sesiones suelen tener la misma estructura. Incluso algunos personajes se mueven de forma muy parecida. Lo que sí es cierto es que, aunque algunas compañías tuvieron sus roces y rencillas, todos reconocen a Juli Pi como el gran maestro. Y así se reconoció en un número de la prestigiosa revista *Teatre Catalá* (26, 24-08-1912) dedicada monográficamente a los *Titelles* (Títeres), con un artículo de Adriá Gual, y especialmente al maestro Juli Pi. Ese fondo común ya fue claramente descrito por Joan Amades:

“Txotxongilolariek ekarri nahiz asmatutako obra kopuru bat zegoen, idatzi gabeko obrak, txotxongilolariek beraiek lantzen zuten bitartekora eta eskura zituzten baliabideetara moldatuta antzetzeko. Ohikoa zen txotxongilolariek argumentua eta, gutxi gorabehera, ekintzaren bilbea eskematikoki idaztea, baina inoiz ez elkarrizketa:-bat-batean asmatzen zen beti, aurrez finkatutako gida bati jarraikiz. Obra eta argumentuen oinarri komun bat zegoen, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen en. Txotxongilolari batek argumentu arrakastatsu batekin asmatzen bazuen, beste txotxongilolariek bere egiten zuten, izena eta ekintza apur bat aldatu, eta parodiatzen zuten”. (Amades, 1933, 34. or.).

XX. mendean, eta bereziki Gerra Zibilaren aurretik, kataluniar txotxongilolari ugari aritzen zen kafetegietan eta jai nagusietan antzetzten. Oro har bi ziren antzezleak: nagusia eta laguntzailea, baina ahots guztiak nagusiak egiten zituen. Aukera berezietan, jai garrantzitsuetan, lau eta sei ere manipulatzailerako antzezpenak egiten ziren, musikari batzuek lagunduta. Sona handieneko txotxongilolarien artean, badira benetako leinuak eratu dituzten familia batzuk, ehun urtetik gorakoak ere; horietako bat, Vergéstarrena, arrakastaz antzetzten jarraitzen du oraindik ere. Horietako batzuen inguruan hitz egingo dugu.

“Había un número de obras no escritas, traídas e inventadas por los mismos titiriteros, propias para ser representadas por éstos adaptándose al medio en que trabajaban y a los medios de que disponían. Era común que los titiriteros escribieran el argumento de una forma esquemática y, más o menos, la trama de la acción, pero nunca el diálogo, que siempre era improvisado siguiendo una guía fijada previamente. Había un fondo común y tradicional de obras y argumentos que pasaban de generación en generación. Cuando había un titiritero que acertaba con un argumento exitoso, los otros titiriteros lo hacían suyo, cambiaban el nombre y un poco la acción, y lo parodiaban.” (AMADES, 1933, p. 34).

En el siglo XX, y especialmente antes de la Guerra Civil, fueron numerosos los titiriteros catalanes que actuaron en cafés y fiestas mayores. Generalmente actuaban dos, el jefe y el ayudante, aunque todas las voces las solía hacer el jefe. En ocasiones especiales, para fiestas importantes, se hacían representaciones con hasta cuatro o seis manipuladores, con el apoyo de varios músicos. Entre los más renombrados figuran algunos que llegaron a constituir sagas familiares, alguna de las cuales han superado los cien años e incluso una, la de los Vergés, que todavía sigue actuando con éxito. Vamos a hablar de algunos de ellos.



Arturo Vilà.

Arturo de Sant Hilari

Baliteke Artur Vilà y Tècul-ek (Figueras, 1863-1938) Federicu de Figuerasengandik ikasizana txikitari. Bere jaioterrian lanbidez la-torrigilea zen, eta bertako Triangular plazako lokal batean emanaldiak egiten zituen. Baina udan egiten zituen emanaldiek bihurtu zuten ezagun; zehazki, ekainaren 15etik irailaren 15era Sant Hilari Sacalm bainuetxe-herrian egin zituenak, 1891etik 1936ko uztaile arte, Gerra Zibila piztu arte. Gauero Font Picant bainuetxean antzezten zuen; arratsaldetan, berriz, Salón de la Unión aretoan edo Tívoli antzokiaren kafetegian. Horietan, gainera, zerbitzari ibili zen.

Haren errepertorioa nahiko ezaguna da. Bertiko piezetatik ateratzen zuen, edo aktore antzerkietan ikus zitezkeen obra famatuagoak egokitzen zituen. Barne hartzen zituen dramak nahiz komediak, batzuk izaera magikokoak, baita entremesak, denbora-pasak eta dantzak ere. Kataluniako beste txotxongilolari batzuek bezala, koaderno bat zeukan eta hortxe zituen idatzita argumentuak. Beste guztia bat-batean asmatzen zuen. Zoritxarrez, bertan behera utzi behar izan zituen txotxongiloak, Sant Hilariko etxe batean gordetako kutxa batzuetan, Gerra hasi zenean presaka Figuerasera joan behar izan zelako. Handik gutxira, jakinarazi zioten bere txotxongilo eta dekoratuak erre egin zirela. Etxea erre ziotenean gainerako materiala ere galdu zen, eta bera handik gutxira hil zen. Nahiko gutxi dakigu haren inguruan, publizitateko postal batzuk daudela eta gutxi gehiago, baina Portas Vilà familiak haren artxiboaren parte bat gordetzen du eta artikulu bikaina argitaratu zuen Sant Hilari Sacalmeko 2009ko festen egitarauan (Sampedro, 2009).

Artur Vilà y Tècul (Figueras, 1863 - 1938), pudo aprender en su infancia de Federicu de Figueras. Era de profesión hojalatero en su ciudad natal y en ella realizaba funciones en un local de la Plaza Triangular. Pero se hizo conocido por sus actuaciones veraniegas, del 15 de junio al 15 de septiembre, en Sant Hilari de Sacalm, localidad de balnearios, desde 1891 hasta julio de 1936, cuando estalla la Guerra Civil. Todas las noches actuaba en el balneario de la Font Picant, mientras que por las tardes lo hacía en el Salón de la Unión o en el café del Teatro Tívoli, en los que también ejercía de camarero.

Se conoce bastante bien su repertorio, extraído de piezas tradicionales o adaptaciones de las obras más famosas que se podían ver en los teatros de actor. Incluía tanto dramas, como comedias, entre las que figuraban alguna de carácter mágico, además de los entremeses, pasatiempos y bailes. Como otros titiriteros catalanes tenía una libreta donde llevaba apuntados los resúmenes de los argumentos, el resto era improvisado. Desgraciadamente tuvo que abandonar sus títeres en unas cajas que depositó en una casa de Sant Hilari cuando, debido al estallido de la Guerra, tuvo que marchar apresuradamente a Figueras. Al poco le informaron que sus títeres y decorados se habían quemado. El resto de su material se perdió también cuando quemaron su casa, falleciendo él poco después. Se conocía bastante poco de él, apenas la existencia de unas postales publicitarias y poco más, pero la familia Portas Vilà guarda parte de su archivo y publicó un excepcional artículo en el programa de fiestas de Sant Hilari Sacalm de 2009 (SAMPEDRO, 2009).

Ramón Montserrat

Ramón Montserrat Harry V. Tozer maisuaren txotxongilolari maiteenetako bat izan zen. Gaur egun, oraindik ere hari buruzko datu gutxi ditugu. Ez dakigu zein egunetan jaio zen, baina 1885 baino lehen kokatu beharrekoa izango da; izan ere, Tozerrek dioenez, hura zen Juli Piren laguntzaile ibilitako hiruen artean zaharrena. Beste biak Faidella (1891ean jaioa) eta Anglès Vilaplana (1888an jaioa) izan ziren.

Haren lehen arrastoa 1908an aurki daiteke: Bartzelonako Gràcia auzoko kafetegi batean antzeztu zuen, Teatro Mecànic de Putxinel·lis (Polixinela Antzerki Mekanikoa) izenarekin eta Joaquim Salvador musikariarekin batera. Ez dirudi hor egin zuenik debuta. Garai haieran, *titellaire* (txotxongilolari) guztiak oso gazte hasten ziren antzeztzen. Kafe-etxe batzuetan antzeztu zituen emanaldien programa batzuk ditugu: bereziki Cafè del Daldo, Petit Bar Guinardó, Hostal Fonda Miramar eta beste batzuetan, 1908 eta 1928 artean, hainbat izenekin. Gehien errepikatzen dena Gran Compañía Cómico-Dramática de Guiñol o de *Putxinel·lis* da. Programa horiei esker, haren errepertorioaren zati handi bat berreraiki daiteke. Helduentzako lanak dira nagusi.

Bere heriotza-dataren berri Harry Tozerrek eman zuen, *Puppetry Yearbook* aldizkarian (1937, 38. or.): «He died three days before the outbreak of the civil war in July last year». Hau da, 1936ko uztailaren 15ean gutxi gorabehera. Nolanahi ere, Tozerrek aurreko zenbakietan adierazi zuenez, oso noizbehinka antzeztzen zuen, osasuna zela-eta. Semea 1937an hil zen, Burrianan (Castelló) izandako bonbardaketa batean (*Puppetry Yearbook*, 1938, 20 or.), eta hori dela eta konpainia betiko desagertu zen.

Uno de los titiriteros preferidos por el maestro Harry V. Tozer fue Ramón Montserrat del que todavía hay escasos datos. Se desconoce la fecha de su nacimiento que debe situarse anterior a 1885, pues Tozer declara que era el mayor de los tres que habían actuado como ayudantes de Juli Pi, siendo los otros dos Faidella (nacido en 1891) y Anglès Vilaplana (nacido en 1888).

La primera vez que se encuentra rastro de él es en 1908, actuando con el nombre de Teatro Mecànic de Putxinel·lis (Teatro Mecánico de Polichinelas), en un café del barrio de Gràcia de Barcelona, acompañado por el músico Joaquim Salvador. Es poco probable que fuera su debut, pues en aquellos tiempos todos los *titellaires* (titiriteros) comenzaban a actuar muy jóvenes. Se cuenta con una serie de programas de actuaciones suyas en varios cafés, especialmente en el Café del Daldo, en el Petit Bar Guinardó, Hostal Fonda Miramar y otros, entre 1908 y 1928, con varios nombres, siendo el que más se repite el de Gran Compañía Cómico-Dramática de Guiñol o de *Putxinel·lis*. Con ellos se puede reconstruir una parte importante de su repertorio, con claro predominio de las obras para adultos.

La fecha de su muerte la desvela Harry Tozer en el *Puppetry Yearbook*, 1937, p. 38: “He died three days before the outbreak of the civil war in July last year”. O sea, sobre el 15 de julio de 1936. Aunque Tozer, en números anteriores, señalaba que debido a su salud actuaba ya en muy contadas ocasiones. Su hijo murió en 1937 durante un bombardeo en Burriana (Castellón) (*Puppetry Yearbook*, 1938, p. 20), con lo que la compañía desaparecía para siempre.

Antoni Faidella

Antoni Faidella i Colea-ren (1891-1970) bizitza bai, nahiko ondo ezagutzen dugu, haren alaba eta jarraitzaile Joaquima Faidellak idatzitako bi liburuxkari esker (1987 eta 2006an argitaratu ziren, ikus bibliografía). Liburuotan barrakako txotxongilolarien bizitzari buruzko datu iradokitzaile ugari eta marrakzi sorta eder bat ekartzen dizkigu. Faidella Sant Martí de Provençals herrixkan jaio zen. Ondoren, 1897an, Bartzelonak auzo moduan bereganatu zuen udalerrria. Zazpi urte eskas zituela jada Joan Palou *titellaire*aren laguntzaile aritu zen, haren antzokitxoaren oihala jaisten eta igotzen. Bederatzi urterekin fabrika batean hasi zen, beira-putzegile moduan, Joan Palouekin harremanetan jarraitzen zuela. Bere mihiak berak egin zituen, latorrizko zatiek, baita antzokitxo landugabe bat ere. Etxez aldatu zenean beste *titellaire* bat ezagutu zen, Joan Llenas, eta haren laguntzaile ere aritu zen. Hamasei urte inguru zituenean, Novedades antzokira joan zen Juli Pi maisua ikustera. Emanaldia hastear zela, Antoni gazteak Titellaren ahotsa intonatu zuen bere mihiarekin. Pi maisua suminduta atera zen eszenara eta agiraka hasi zitzaion, eta gazteak haren errieta onartu zuen. Amaieran, Juli Pik berekin lan egitea eskaini zion, eta hala egin zuen, hiru urtez-edo, soldadutzara joan behar izan zuen arte. Jasoa zuen prestakuntza osoa.

Soldadutzatik bueltan, atezain aritu zen ehun-fabrika batean eta aldi baterako beste lantxo batzuk ere egin zituen. Bitartean, bere txotxongiloak eta antzokitxoak perfekzionatzen jarraitu zuen. 1927 urte inguruan bere lehen barraka eraiki zuen. Oso txikia zen, 4x4 m-koa, eta Gabonetan Bartzelonako Espainia Plazan ezarri zuen. Gero eta barraka handiagoak eraikitzen jarraitu zuen: azkenekoan 200 pertsona sar zitezkeen, horietatik 80 eserita.

Sí que conocemos bastante bien la vida de Antoni Faidella i Colea (1891-1970), debido a dos libritos escritos por su hija y continuadora, Joaquima Faidella (publicados en 1987 y 2006, ver bibliografía) que nos aportan muchos y sugestivos datos sobre la vida de los titiriteros de barraca y una buena serie de imágenes. Nació en el municipio de Sant Martí de Provençals, que en 1897 sería absorbido como barrio de Barcelona. Con apenas siete años ya ejerció de ayudante del *titellaire* Joan Palou para subir y bajar el telón de su teatrillo. A los nueve comenzó a trabajar en una fábrica de soplador de vidrio, siguiendo sus contactos con Joan Palou, fabricándose él mismo, con trozos de lata, sus propias lengüetas y un rústico teatrillo. Al cambiar de domicilio conoció a otro *titellaire*, Joan Llenas y le hizo también de ayudante. Sobre los 16 años acudió al Teatro Novedades para ver al maestro Juli Pi. Cuando la función iba a comenzar el joven Antoni entonó con su lengüeta la voz de *Titella*. El maestro Pi, salió indignado a escena y le increpó, aceptando el joven sus recriminaciones. Al final, Juli Pi le ofreció trabajar con él, cosa que hizo durante unos tres años hasta que tuvo que hacer el servicio militar. Su formación ya estaba completa.

Al volver del servicio militar, trabajó de portero en una fábrica de tejidos y realizaba otros muchos trabajos eventuales. Siguió perfeccionando sus títeres y su pequeño teatrillo. Sobre 1927 construyó su primera barraca, una muy pequeña, de 4x4 m. que instaló para navidades en la Plaza de España de Barcelona. Fue construyendo sucesivas barracas cada vez más grandes, la última con capacidad para 200 personas, 80 de las cuales sentadas.

Barrakekin bidaiatzen, Els Tres Tranquils ize-narekin, Kataluniako jai nagusi guztietatik zeraman zirkuitu bat sortu zuen. Gerra Zibila Granollersen pasa zuten, negurako izan ohi zuten bizilekuan, eta bere barrakak kalteak jasan zituen hirian izandako bonbardaketa basati batean. Gerra amaituta, 1939an, Mallorcako irlara joan ziren zorte bila, eta han ezarri ziren. 1943an txotxongiloak egiten ziren kafe baten arduradun izan ziren, Alaróko udalerrian. Oso ondo joan zitzairen baina beste lokal batzuetako jabeek bizitza zapuztu zieten, eta Lluçmajorera joan behar izan zuten. Azkenean han ezarri ziren behin betiko.

Anglèstarrak

Familia-leinua hasi, Jaume Anglès i Pallejàrekin hasi zen (1857-1919): 1873 inguruan han-hemenka antzezten hasi zen, eta 1902an ofizialki sortu zuen konpainia (Jané, 2001, 52. or.). Nolanahi ere, Jaume Anglès i Vilaplana semea izan zen benetako maisua (1888-1945). Esan dugun moduan, Piren laguntzaile izan zen, baita Vergés leinuaren sortzailearen maisu ere. Bide batez, Sebastià Gaschek 1904 urtean kokatzen du Anglès Vilaplana konpainiaren sorrera (Gasch, 1949, 38. or.).

Anglès Vilaplanarekin konpainiaren ospealdia hasi zen. Bartzelonan saio ugari eman zituzten, hala areto eta zentro sozialetan nola kataluniar burgesiaren etxeetan, familiarteko saioetan. Tibidabon antzokitxo bat izan zuten 1920 urtera arte, antzezteko erabiltzen zuten tokian gaur egun ere badiraen Talaia atrakzioa kokatu zuten arte. Prestigio profesional handia lortu zuen Aureli Capmanyk 1921-1922 artean Bartzelonako Reig aretoan joka zezala eskatu zionean. Capmany folklorista nabarmenak programazio erabat interesgarria eskaintzen zuen han: hari-txotxongiloena, berak zuzenduta, eta Kataluniako eskularruzko txotxongiloena, Anglès Vilaplanak zuzenduta.

Viajando con ellas creó un circuito por todas las fiestas mayores de Cataluña, utilizando el nombre de Els Tres Tranquils. La Guerra Civil la pasaron en Granollers, su residencia habitual en invierno, siendo afectada su barraca durante un feroz bombardeo de la ciudad. Al acabar la Guerra, en 1939, decidieron probar suerte en la isla de Mallorca donde se establecerían. En 1943 regentaron un café en la localidad de Alaró donde se hacían *titelles*. Les fue muy bien pero los propietarios de otros locales les hicieron la vida imposible y tuvieron que marchar a Lluçmajor, donde ya se establecerían definitivamente.

Los Anglés

Aunque la saga familiar comienza con Jaume Anglès i Pallejà (1857-1919), que comienza a actuar esporádicamente sobre 1873 y funda oficialmente la compañía en 1902 (Jané, 2001, p. 52), el verdadero maestro será su hijo Jaume Anglès i Vilaplana (1888-1945) que, como hemos dicho fue ayudante de Pi y maestro del fundador de la saga de los Vergés. Por cierto que Sebastià Gasch da la fecha de 1904 como la de fundación de la compañía por Anglès Vilaplana (Gasch, 1949, p. 38).

Con Anglès Vilaplana comienza el esplendor de la compañía que realiza frecuentes actuaciones en Barcelona, tanto en salas y centros sociales como en sesiones familiares en casas de la burguesía catalana. Mantiene un teatrillo en el Tibidabo hasta 1920, cuando se instala en el lugar donde actuaban la atracción de la Atalaya, que aún persiste. Alcanza altas cotas de gran prestigio profesional cuando Aureli Capmany solicita sus actuaciones entre 1921-1922 para la Sala Reig de Barcelona, donde el destacado folklorista dirige una interesantísima programación de marionetas de hilo, que él mismo debía regir, y de títeres de guante catalán, dirigidas por Anglès Vilaplana.



Colección familia Anglès familiaren bilduma, 1899.
Foto MAE-ren argazkia.



Boxealaria/Boxeador.
Colección familia Anglès familiaren bilduma, 1899. Foto MAE-ren argazkia.

Bertan, Anglèsek pieza tradizionalak (*L'Aixarop de bastó, Un valent burlat*) eta kataluniar idazleen egokitzapen eta obra originalak aurkeztu zituen (*El titella pròdig*, Santiago Rusiñolena; *El Titella sportman*, Coromines anaiaena, eta Molièren *El casamiento a la fuerza*-ren egokitzapena, haren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatzeko. Txotxongilo horiek Bartzelonako Arte Eszenikoen Museoan daude gordeta). 1923an Julián Pi eta Jaime Anglès batera aritu ziren lanean, Montjuïc Parkean (*La Vanguardia*, 1923/10/18, 10. or.). 1924an Anglèsek denboraldi segida luze bat hasi zuen Carrer del Pi-ko Empordanesa aretoan. Prentsaren bidez, haren errepertorioaren zati handi bati jarraitu dakioke. Litekeenik, han izango zuten Anglèstarrek lehen harremana Harry Tozerrekin, hura Kataluniako txotxongiloen anatomia ezagutu nahian zebilela.

Hamalau urterekin Jaume Anglès Guzmán (1913-1978) bere aitarekin hasi zen lanean eta, Gerra Zibila igaro ostean, bere gain hartu zuen konpainiaren zuzendaritza. Anglès Guzmànek harreman onak zituen haurrentzako ikuskizunetako enpresari berri batzuekin eta kulturaren munduko jendeekin, esate baterako, Gasch, Tozer eta Reig jaunarekin (Reig altzarien eta aretoaren jabea). Bere txotxongiloetako batzuk eskatu egin zituen –adibidez, Martús eskultorearen moduko tailugileei; Januszewski margolari poloniarrek diseinatu eta Anglèsek edo Tozerrek berak margotu zituzten–, eta nabarmenki eboluzionatu zuten betiko txotxongiloen aldean. 40ko hamarkadan Mozart aretoan aritu zen lanean, nola baiteko maiztasunarekin, Eugenio Rocaren zuzendaritzapean. Han jardun zuen Ezequiel Vigués «Dido»k ere. 1955etik aurrera Turó Parkean ezarri ziren eta hantxe egon ziren, harik eta laugarren belaunaldian, Josep eta Jaume Anglèsekin, konpainia desegin zen arte, 79 urtearen amaieran edo hurrengo hamarkadaren hasieran.

En ella Anglès presentó piezas tradicionales (*L'Aixarop de bastó, Un valent burlat*) y adaptaciones u obras originales de escritores catalanes (*El titella pròdig* de Santiago Rusiñol, *El Titella sportman* de los hermanos Coromines, o la adaptación de *El casamiento a la fuerza*, de Molière, para celebrar el tricentenario de su nacimiento, cuyos títeres están guardados en el MAE de Barcelona). En 1923 trabajan juntos Julián Pi y Jaime Anglès en el Parque de Montjuich (*La Vanguardia*, 18-10-1923, p. 10). En 1924 comienza Anglès una larga serie de temporadas en la Sala Empordanesa de la calle del Pi, pudiéndose seguir en la prensa buena parte de su repertorio. Probablemente sea allí donde, más adelante, los Anglès toman primer contacto con Harry Tozer que anda interesado en conocer la anatomía de los títeres catalanes.

A los 14 años comenzará a trabajar con su padre, Jaume Anglès Guzmán (1913-1978) que tomará las riendas de la compañía pasada la Guerra Civil. Anglès Guzmán mantiene buenos contactos con algunos de los nuevos empresarios del espectáculo infantil, así como personas del mundo de la cultura como Gasch, Tozer o el señor Reig, propietario de los Muebles Reig y de la Sala Reig. Encargará algunos de sus títeres, que evolucionan notablemente con respecto a los tradicionales, a tallistas como el escultor Martús, siendo diseñados por el pintor polaco Januszewski y pintados por él o por el mismo Tozer. Trabaja en los años 40 con cierta asiduidad en la Sala Mozart, que dirigirá Eugenio Roca, donde también lo hará Ezequiel Vigués, Didó. A partir de 1955 se establecerá en el Turó Park en el que permanecerán hasta su disolución como compañía en la cuarta generación, con Josep y Jaume Anglès, sobre finales del 79 o principios de la década siguiente.

Vergéstarrak

Sebastiá Vergés i Prats (1900-1974) izan zen konpainiaren sortzailea. Faidella bezala, Sant Martí de Provençalsen jaio zen, baina jada Bartzelonako auzo zenean. Familiaren ustez, litekeena da Joan Palou *titellaire*a lanean ikusi izana, baina ziurra zera da: hamar-hamairka urte zituela Jaume Anglès Vilaplanaren laguntzaile moduan hasi zela. Nahiz eta hamabost urterekin dagoeneko egiten zituen antzeztzen jarraitu zuen, 1920eko hamarraldia ondo aurreraturik zen arte. Horregatik behar bada, Tozerrek eta Amadesek ez dute konpainiaburu gisa jasotzen, nahiz eta hamarraldi horretan jadanik hainbat saio egiten zituen bere anaia Antonirekin (1909-1985). Gerra Zibilaren aurreko emanaldi horietan bere emazte Isabel Cadenak ere hartzen zuen parte. Nagusiki karpa eta enparantzetan egiten ziren, Bartzelonako auzoetako jai nagusietan, baina baita kafetegia eta aretoetan ere, helduei zuzendutako emankizunetan.

Vergéstarren benetako gailurraldia Gerra Zibila amaitu bezain laster hasi zen, Antonio Guasch enpresariak 1943an beste enpresaburu batzuekin batera Organizaciones GIB delakoa sortu zuenean. Erakunde horrek zuen benetan Bartzelonako haurrentzako ikuskizunak antolatze boterea. 1939an Quatre Gats lokal zaharrea aritzeko kontratatatu zituen. Flotats *titellaire*ak ere bertan antzeztu zuen (*La Vanguardia*, 1940/04/28, 7. or.). 1940an Bartzelonako Espainiar Herriko (Poble Espanyol) plaza nagusian haurrentzako ikuskizunak egiteko kontratatatu zituen. Han aritu ziren lanean, igandero 1957 arte, pailazo, zirko-artista eta txotxongiloak barne hartzen zituen bariatate-ikuskizun batean. Aurkezlea Jaime Albiol zen, Bartzelona guztian «Perico, umeen laguna» izenez ezaguna. Aurrerago, ostegun eta larunbat arratsaldetan Almacenes Jorba zentroko terrazan hasi ziren lanean, 1949tik 1963ra arte. Bartzelonako merkataritza-zentro garrantzitsuena zen.

Los Vergés

El fundador de la compañía fue Sebastiá Vergés i Prats (1900-1974) que nació, al igual que Faidella, en Sant Martí de Provençals, por entonces ya barrio de Barcelona. En la familia se cree que debió de ver trabajar al *titellaire* Joan Palou, pero lo seguro es que con diez u once años comienza a hacer de ayudante de Jaume Anglès Vilaplana. Aunque a los quince años ya realiza actuaciones en solitario, seguirá actuando dentro de la compañía de los Anglès hasta bien avanzada la década de 1920. Esto puede hacer que tanto Tozer como Amades no lo recojan como un jefe de compañía, aunque en esa década realizaba ya abundantes funciones con su hermano Antoni (1909-1985). Esas actuaciones anteriores a la Guerra Civil, en las que también intervenía en ocasiones su mujer Isabel Cadena, se celebraban principalmente en carpas y plazas durante las fiestas mayores de los barrios de Barcelona, pero también en cafés y salones, en funciones dirigidas a adultos.

El verdadero auge de los Vergés comienza nada más acabar la Guerra Civil cuando el empresario Antonio Guasch, que junto a otros empresarios fundaría en 1943 las Organizaciones GIB, auténticos detentadores del poder organizativo de espectáculos infantiles en Barcelona. Los contrata en 1939 para realizar actuaciones en el viejo local de los Quatre Gats, donde actuaría también el *titellaire* Flotats (*La Vanguardia*, 28-04-1940, p. 7). En 1940 los contrata para sus espectáculos infantiles en la plaza Mayor de El Pueblo Español de Barcelona. Allí estarían todos los domingos hasta 1957 dentro de un espectáculo de variedades que incluía la presencia de payasos, artistas circenses y títeres, presentados por Jaime Albiol, conocido en toda Barcelona como *Perico, el amigo de los niños*. Más adelante entrarían a trabajar las tardes de los jueves y sábados en la terraza de los Almacenes Jorba, el más importante centro comercial de Barcelona, desde 1949 hasta 1963.



Cabezas colección familia Vergés familiaren bildumaren buruak.
Foto Nati Cuevas-en argazkia.

Emanaldi finkoei esker, gainera, hainbat eskaera jaso zituzten Bartzelonako eta inguruetako etxe oneko familien urtebetetze eta jaunartze festetan obrak antzezteko. Hala, ziurrenik, Katalunia osoan diru gehien irabazten zuten *titellaires* bihurtu ziren Vergéstarrak. Sebastià Vergés Pratsek, Anglèstarrek egin bezala, haurrek ere ikusteko egokitu zituen beren lanak, adulterioari aipamenak eta agintaritza-agenteei trufak kenduta. Gai horiek erabat ohikoak ziren Gerra aurreko saioretan. Gaztelaniaz antzeztzen ziren, katalana erabat debekatuta egon baitzen urte horietan, baina ziur dakit zenbait leku «lasaitan», parroquia-aretoetan eta elkarte katalanistetan, kasu, katalanezko lanak antzeztu zituztela Vergéstarrek (esku-programa batzuk hala ematen dute aditzera).

Baliteke haurren antzerkiari emandako denborak eta Kataluniako kultur ordezkariekin harremanik ezak txotxongiloei buruzko argitalpenetan zuten presentzia kaltetu izana. 50eko hamarkadaren amaieran, telebista sortu berrirako saio bat egiten hasi ziren, 28 programakoa. Nik uste huraxe izan zela haien gailurra, Martí eta Sebastià Vergés Cadena semeek ere antzeztzen zutenean. Sebastià Vergés zaharraren osasun-egoerak okerrera egin zuen, eroriko batzuk zirela medio, eta konpainia gainbeheran hasi zen. Poliki, larriagotzen joan zen. 1975etik aurrera, aitona hil ostean, haren biloba Sebastià Vergés Martínezek indar berria eman zion konpainiari, familia guztia tartean sartuta eta aldi berean funtzionatzen zuten hiru antzezte-talde sortuta. Sebastià III. ak ongi jakin du betiko txotxongiloak garatzen, bi lan-ildoren bitartez: berritzailea bata, bere txotxongiloen tailuak eredu modernoagoetara aldatuta, eta tradizionala bestea, txotxongilo zaharrenekin. Oraindik bizirik baina jada jardunean ez diren Anglèstarrekin batera, buruan gordetzen ditu tradizio bikain horren ezaguera biziak. Horrez gain, Kataluniako geografian zehar birak egiten ditu oraindik, baita Espainiako zati handi batean ere.



Primera y segunda generación familia Vergés familiaren lehenengo eta bigarren belaunaldiak, 1940.

Estas actuaciones fijas les proporcionarían además múltiples peticiones para realizar obras para cumpleaños y comuniones de las familias bien de toda Barcelona y alrededores. Esto hizo que, casi con seguridad, fueran los Vergés, los *titellaires* que más dinero ganaban en toda Cataluña. Sebastià Vergés Prats, como también hicieron los Anglès, acondicionó sus obras para que pudieran ser vistas por niños, eliminando referencias a adulterios o burlas a agentes de la autoridad, temas tan habituales en las sesiones anteriores a la Guerra. Se representaban en castellano pues el catalán fue terminantemente prohibido durante aquellos años, aunque tengo constancia de que en lugares “tranquilos”, como salones parroquiales o de asociaciones catalanistas, los Vergés representaron obras en catalán (varios programas de mano así lo atestiguan).

Puede ser que esa dedicación infantil y el hecho de que no se relacionaran con los representantes de la cultura catalana, entorpeciera su presencia en las publicaciones sobre títeres. A finales de los 50, emprendieron una serie de 28 programas para la naciente TVE. Creo que ese fue su punto álgido, cuando también actuaban sus hijos Martí y Sebastià Vergés Cadena. El estado de salud del viejo Sebastià Vergés se resintió por unas caídas y la compañía entraría en declive, que se fue agravando lentamente. A partir de 1975, tras la muerte de su abuelo, Sebastià Vergés Martínez dio un nuevo impulso a la compañía, enrolando en ello a toda su familia y creando hasta tres elencos que se movieron simultáneamente. Sebastià III ha sabido desarrollar los títeres tradicionales en dos líneas de trabajo: una innovadora, modificando las tallas de sus títeres hacia modelos más modernos, y otra, tradicional, con los títeres más antiguos. Junto a los supervivientes de los Anglès, inactivos ya, posee en su cabeza conocimientos vivos de esa esplendorosa tradición y, además, él sigue recorriendo toda la geografía catalana e incluso buena parte de la española.

Ezequiel Vigués, «Didó» ezizenez ezaguna

Kontu bitxia da, baina frankismoaren amaieran eta ostean sortutako talde berri gehienek Didó (1880-1960) hartu zuten tradizioaren ispilutzat, eta ez horrenbeste jada aipatu ditugun txotxongilolariak. Didók zerikusi gutxi du Kataluniako eskularruzko txotxongiloekin, horietako asko baino lehenago jaio bazen ere. Didó 50 urterekin hasi zen txotxongiloekin antzezten. Prestakuntza, eskasa baina egitekotsua, Frantzian jaso zuen, gerora ospetsu bihurtutako Desarthis-en aitarekin, Montsouriseko lorategietan. 1931 aldean Bartzelonara joan zen eta publikoaren arreta berehala jarri zen haren gainean, ageriko trebezia zuelako kazetariak eta kulturaren arloko pertsonak erakartzeko; seguru aski, Parisen Seville kabaret eta musika-aretoaren buruan ibili zeneko garaietatik ekarria. Establezimendua bere maitearentzat erosi zuen, Bartzelonako Lizeoko lehen dantzaria izandako Teresina Boronat ederrarentzat. Bartzelona hiria Anglèstarrek eta Vergèstarrek zuten hartuta, eta Faidella Mallorca aldean zebilen bere karparekin; hortaz, Didók barrakako *titellaire*aren abenturara jo zuen, eta Katalunia osoan zehar bidaiatu zuen. Haren txotxongiloak manipulazio frantsesekoak ziren, panpinaren buruan hatz bakarra sartzen zela, eta ez zuen mihi-tresnarik erabiltzen, litekeenik, haren adinean oso zaila izango zuelako erabiltzen ikastea. Hasieran bere erreperorioa ere nagusiki frantsesa zen, eta Polichinelle zerabilen aurkezle ofizial moduan, baina laster asko sartu zituen kataluniar pertsonaiak bere lanetako protagonista gisa: adibidez, *Tit* (*Titellatik*) eta *Dimoni* (*Deabrua*).

Ezequiel Vigués, conocido por Didó.

Resulta curioso que fuera *Didó* (1880-1960), y no tanto los ya mencionados, el espejo de la tradición en que se miraron buena parte de los nuevos grupos que surgieron a finales del franquismo y posteriormente. *Didó* tiene poco que ver con el títere de guante catalán, aunque naciera antes que muchos de ellos. *Didó*, que empezó a representar con títeres a los 50 años, tuvo una escasa pero intensa formación francesa, junto al padre del luego famoso Desarthis en los jardines de Montsouris. Sobre 1931 acudió a Barcelona y enseguida los focos de la atención pública se centraron en él, pues tenía una demostrada pericia para atraer a los periodistas y personas de la cultura, seguramente proveniente de su periodo parisino al frente del cabaret y music-hall, Seville, adquirido para su amada, la bellísima bailarina Teresina Boronat, que había sido primera figura en el Liceo barcelonés. Como la ciudad de Barcelona estaba copada por los Anglés y los Vergés, y Faidella se había marchado a Mallorca con su carpa, *Didó* recuperó la aventura del *titellaire* de barraca, viajando con ella por toda Cataluña. Sus títeres eran de manipulación francesa, con un solo dedo a la cabeza del muñeco, no utilizaba la lengüeta, probablemente porque le sería muy difícil aprender a manejarla con su edad. Su repertorio comenzó siendo predominantemente francés, con Polichinelle de presentador oficial, aunque muy pronto introdujo a personajes catalanes como *Tit* (*Tit de Titella*) y al *Dimoni* (Demonio) como protagonistas de buena parte de sus obras.



Polichinela
aurkezlea/presentador.
Foto MAE



Pep Bou de Jordi Bertrán-en Pep Bou, 2014. Foto Marta Marco-ren argazkia.

Tradizioaren indarra, Kataluniako txotxongilolaritzaren eraberritzearen ezinbesteko oinarri

Kataluniar eskularru-*titellaire* batzuk ekarri nahi izan ditut, eta, jakina, aipatutakoez gain badira askoz gehiago ere 1850etik 1936ra doan aldian: Miquel Canals, Martí l'Herbolari, Quico d'Hostafrancs, Mateu Cantaclà «Mata-titellas», Senyor Manel, Joan Barquet, Jaume Abián, Joan Llenas, Joan Butxacas, Joan Gisbert, Manuel Aliau, Joanet Alemany, Flotats eta historian zehar galdutako beste hainbat. Honekin zera esan nahi dut: Kataluniako *putxinel-lis* edo *titelleak* berebiziko fama izan zutela, Italia, Frantzia edo Alemaniako gune askotan izandakoaren parekoa, edo behar-bada handiagoa. Eta, horrez gain, teknika erabat original batekin: buru-sorbalden oinarrian hiru hatz sartuta. Nahiz eta badiren zenbait ikerlan on (hemen gehienak ageri dira erreferentzia gisa), oraindik idazteke daude historia eta analisi beteagoak.

Zalantzarik gabe, haiek izan dira txotxongilolari kataluniar berrien mugimendu garrantzitsuen oinarria; hau da, hala kantitatean nola kalitatean Espainiako mugimendu garrantzitsuenaren oinarria. Haiek kafe-etxeetan, plazetan, feriako barraketan eta antzoki batzuetan izandako igaroa bizirik da kataluniar herriaren inkontziente kolektiboan. Espainiako beste aldeetako txotxongilolari ugari diotenez, Kataluniara doazenean antzeztera (ez da oso ohikoa orain katalana nagusi dela), erabat gustura daude: «nabari da kataluniarrek txotxongiloak estimatzen dituztela».

La fuerza de la tradición como base imprescindible para la renovación catalana y su actual esplendor.

He querido nombrar a algunos *titellaires* del guante tradicional catalán y naturalmente hay muchos más, además de los mencionados, en el periodo que va de 1850 a 1936: Miquel Canals, Martí l'Herbolari, Quico d'Hostafrancs, Mateu Cantaclà, llamado *Matatitellas*, el Senyor Manel, Joan Barquet, Jaume Abián, Joan Llenas, Joan Butxacas, Joan Gisbert, Manuel Aliau, Joanet Alemany, Flotats y tantos otros que estarán por ahí, perdidos en la historia. Quiero decir con esto que los *putxinel-lis* o *titelles* catalanes tuvieron un esplendor inaudito equiparable, o quizá superior, al registrado en muchas zonas de Italia, Francia o Alemania. Y además, con una técnica, la de los tres dedos en la base de cabeza y hombros, absolutamente original. Pese a la existencia de varios buenos estudios (la mayoría de los cuales aparecen aquí referenciados), todavía queda por escribir una historia y un análisis más completos.

Sin duda alguna, ellos fueron la base sobre la que ha surgido el importante movimiento de nuevos titiriteros y marionetistas catalanes, el más importante de toda España, tanto en cantidad como en calidad. Su tránsito por los cafés, por las plazas, por las barracas de feria y por algunas salas teatrales, ha permanecido en el inconsciente colectivo del pueblo catalán. Muchos titiriteros del resto de España afirman que cuando van a Cataluña a actuar, algo no demasiado frecuente por la barrera que supone ahora el predominio de la lengua catalana, se encuentran muy a gusto: "se nota que los catalanes aprecian los títeres".

Bibliografía esencial del títere de tipo catalán

AMADES, Joan (1933). *Titelles i ombres xineses*. Biblioteca de tradicions populars, Barcelona.

AMADES, Joan (1950). *Costumari Català. El curs del any*. Salvat, Barcelona, 1982, 2ª ed, facsímil, t. 2, pp. 545-552.

AMADES, Juan (1957). "Nuestros títeres". *San Jorge* (Barcelona), 26, 1957, pp. 10-15.

AMADES, Joan (1958). *Le théâtre de marionnettes en Catalogne*, en *Quand les Marionnettes du Monde se donnent la Main...* Commission du Folklore de la Saison Liégeoise, Lieja, 1958, pp. 342-360.

ARTÍS, Avelí (1912). "Els putxinell-lis. En Pi, titellaire dels IV Gats". *El teatre català* (Barcelona), 26, 24-08-1912, pp. 10-11.

ARTÍS, Avelí (1912). "Els putxinell-lis. Quan jo era noi". *El teatre català* (Barcelona), 26, 24-08-1912, pp. 12.

AYUSO, Adolfo (2004). *Cómicos y virtuosos a media luz. Los títeres durante la dictadura franquista en Títeres*. AAVV, Fundación Joaquín Díaz, Diputación de Valladolid, pp. 139-147.

AYUSO, Adolfo (2010). "El títere de tipo catalán y la saga de los Vergés". *Fan-toche, Arte de los títeres*, 4, pp. 17-48.

AYUSO, Adolfo (2012). "Aureli Capmany en la sala Reig de Barcelona". *Fan-toche, Arte de los títeres*, 6, pp. 80-92.

BEAUMONT, Cyril (1938). *Puppets and the puppet stage*. The Studio Ltd. London, p. 37.

CAPMANY, Aureli (1921). "De marionetes i titelles". *La Revista* (Barcelona), 146-147, 16-10-1921, pp 316-318.

Els titelles catalans (1975). Catàleg de la colecció de diapositives. Institut del Teatre de la Diputació de Barcelona.

FAIDELLA, Joaquina (1987). *Titelles Els Tres Tranquils (Antoni Faidella creador dels)*. Edició de autor. Lluçmajor, Islas Baleares.

FAIDELLA, Joaquina (2006). *Cent anys del Pericu, del teatre de titelles de Els Tres Tranquils*. Moll, Mallorca.

FUENTES, Enrich de (1899). "En Titella". *Quatre Gats*, 3, 23-02-1988, p. 2)

GALMÉS, Antoni (2010). *El teatre de putxinell-lis à Catalunya*. Tesis doctoral leída el 28 de junio de 2010 en la Universidad de Barcelona. Se puede consultar en <http://www.mediafire.com/?mmzwn5umgmk>

GASCH, Sebastián (1949). *Títeres y marionetas*. Argos, Barcelona.

GASCH, Sebastián (1958). "Un nombre no olvidado: Julio Pi". *Circo* (Barcelona), 19, 01-06-1958, p. 14.

GASCH, Sebastián (1958). "Títeres en los Quatre Gats". *Circo* (Barcelona), 21, 01-09-1958, p. 10.

GASCH, Sebastián (1973). "Títeres y títeres". *Destino* (Barcelona), 1861, 02-06-1973, pp. 38-39.

GUAL, Adrià (1912). "Els putxinell-lis. Estudi monogràfic dels titelles". *El teatre català* (Barcelona), 26, 24-08-1912, pp. 8-10.

JANÉ, Jordi (2001). *Les arts escèniques a Catalunya*. Cercle de Lectors/Galaxia Gutenberg, Barcelona, pp.43-64.

JARDÍ, Enric (1972). *Historia de Els 4 Gats*. Aedos, Barcelona, pp. 61-73.

MARTÍN, Josep A. (1998). *El teatre de titelles a Catalunya*. Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Barcelona.

MCCORMICK, John; PRATASIK (1998), Benjie. *Popular puppet theatre in Europe, 1800-1974*. Cambridge University Press, Cambridge, Reino Unido, 2ª ed., 2004, p. 143.

MIRACLE, Josep (1933). "El públic dels putxinell-lis". *Mirador* (Barcelona), 227, 08-06-1933, p. 6.

PHILPOTT, A.R. *Dictionary of puppetry*. Plays Inc., Boston, USA, 1969, p. 47 (voz "catalan puppet").

PORRAS, Francisco (1981). *Titelles teatro popular*. Editora Nacional, Madrid.

TOZER, H. V. (1932). "The puppet theatre in Barcelona". *Puppetry 1932; a yearbook of puppets & marionettes* (Birmingham,MI,USA), 3, nov 1932, pp. 19-26. Consultar también los correspondientes a los años 1934, 1935, 1936, 1937, 1938, 1940, 1941, 1942-43, 1944-45 y 1946-47.

TOZER, H. V. (1948). "Putxinell-lis". *The Puppet Master* (Cottingham, Yorks, England), vol. 2, 2, abril 1948, pp. 41-44.

TOZER, H. V. (1977) "El titella català vist per un anglès", en *Les grands tradicions populars: ombres i titelles*, Coca, Jordi (dir). Publicacions del Institut del Teatre, Barcelona, pp. 139-143.

VAREY, J. E. (1960) "Los títeres en Cataluña en el siglo XIX". *Estudios escénicos*. Cuadernos del Instituto del Teatro, 5, Diputación Provincial de Barcelona, pp. 45-78.

VÁZQUEZ Estévez, Ana (1997). "A colección de bonecos do Instituto del Teatro de Barcelona". *R. G. T. Revista Galega de Teatro* (Vigo, Pontevedra), 17, diciembre 1997, pp. 45-49.

2.



Hermenegildo
Lanz

HERMENEGILDO LANZ

Xumetasuna abangoardiaren epizentroan

Lanz artista gaztea Granadara iritsi berritan

Hermenegildo Lanz (Sevilla, 1893 - Granada, 1949) figura giltzarria da Espainiako txotxongiloen historian. Granadako Irakasle Eskola Normalean marrazketa-irakasle zebilela, Lanz Federico García Lorcak eta Manuel de Fallak txotxongiloekin egindako antzezpenen erdigunean izan zen, eta ongi jakin zuen haiei maisutasuna eta berritasun eta baliabide tekniko oso interesgarriak ekartzen. Gerra Zibilaren ostean, atzetik izan zuen frankismoaren itzala eta mendeku-nahia, garaiz hil zen arte. Haren oroitzapena deuseztatzea lortu zuten ia; hala litzateke, ez balitz zenbait ikertzaileren eta, batik bat, haren familiaren irmotasunarengatik, bereziki, Enrique Lanz Durán semearena eta Enrique Lanz San Román bilobarena (Etcétera txotxongilo-antzerkiko konpainiaren sortzaileetako bat eta gaur egungo zuzendaria).

HERMENEGILDO LANZ

La modestia en el epicentro de la vanguardia

El joven artista Lanz llega a Granada

Hermenegildo Lanz (Sevilla, 1893 - Granada, 1949) es una figura clave en la historia de los títeres en España. Desde su puesto como profesor de dibujo de la Escuela Normal de Magisterio de Granada estuvo en el epicentro de las representaciones con títeres de Federico García Lorca y Manuel de Falla, a los que supo aportar su maestría y muy interesantes novedades y recursos técnicos. Tras la Guerra Civil la sombra y la venganza del franquismo lo asestará hasta su temprana muerte y casi logrará anular su memoria si no hubiera sido por algunos escasos investigadores y sobre todo por la constancia de su familia, especialmente de su hijo Enrique Lanz Durán y de su nieto Enrique Lanz San Román, cofundador y actual director de la compañía de teatro de títeres Etcétera.

García Lorca nahiz Fallan adituek beti aipatzen dute haren izena beren ikerlanetan, direla nazionalak, direla atzerrikoak. Baina gehienetan azal-azaletik, hark egindako ekarpenak sakon aztertu gabe, mundu osoan eza-gun diren bi figura handi horien lanen zerbitzura zegoen giza tresna huts bat balitz bezala.

Euskal jatorrikoa zen, sukaldari ospetsu baten semea, eta haur eta gazte aroak aitari bizileku batetik bestera jarraika eman zituen. Sevillan jaio zen, eta ez Granadan, zenbaitetik adierazi bezala. Ikasketa artistikoaren lehen urratsak Lisboan eta Madrilan egin zituen. Hiri horretan ikasi zuen, San Fernandoko Arte Ederretako Errege Akademiari lotutako Pintura, Eskultura eta Grabatuko Goi Eskolan, 1912tik 1917ra. 1917ko ekainean Arte Ederretako Erakusketa Nazionalan parte hartu, eta hirugarren domina lortu zuen Grabatu atalean. Horrenbestez, Instrukzio Publikoko Ministerioak 3.000 pezetako bidaia-poltsa bat eman zion. Munta handiko zenbatekoa zen garai haietan (langile batek 150-200 bat pezeta irabazten zituen hilean). 1917ko hirugarren dominak prestigio aitortuko artistek jaso zituzten: besteak beste, José Gutiérrez Solanak, Julio García Condoyk, Daniel Vázquez Díazek eta Federico Marésekin (*La Vanguardia*, 1917/06/21, 9. or.).

1917ko urte hartan bertan Granadara iritsi zen artista gaztea, marrazketa-irakasleko plaza betetzera. Bere lagun eta ikaskide Juan Cristóbal eskultore gaztearen bitartez, berehala egin zioten txoko bat bertako Arte, Literatura eta Zientzia Zentroan, hiriko kultur elkarte nagusian. Hantxe, hurrengo urtean, Federico García Lorca izeneko poeta gazte bat ezagutu zuen, hura bere lehen argitalpeneko poema batzuk irakurtzera joan zenean: *Impresiones y paisajes*. Handik gutxira Lanzi eskaini zion liburu hori: «Nire lagun maite Hermenegildo, gizon gogoraren eta sentimentalaren espiritu miresgarriko hari. [...] (?) lortuko du Albayzín-ari buruzko bere lan zoragarriak argitaratzen dituenean».

Su nombre aparece siempre mencionado en los numerosos estudios, tanto nacionales como extranjeros, de los especialistas en García Lorca o Falla. Pero casi siempre de pasada, sin analizar a fondo sus propias aportaciones, como si fuera una herramienta humana al servicio de las obras de esas dos grandes figuras mundiales.

De origen vasco, su padre era reputado cocinero, su infancia y juventud transcurren siguiendo los diversos lugares de residencia paterna. Nacido en Sevilla, y no en Granada como algunos señalan, sus primeros pasos de aprendizaje artístico suceden en Lisboa y en Madrid. En esta ciudad cursa estudios en la Escuela Superior de Pintura, Escultura y Grabado, vinculada a la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, de 1912 a 1917. En junio de 1917 participa en la Exposición Nacional de Bellas Artes obteniendo una tercera medalla en la sección de Grabado por lo que el Ministerio de Instrucción Pública le otorgó una bolsa de viaje por valor de 3.000 pesetas, cantidad importante para la época (un trabajador ganaba sobre 150-200 pesetas al mes). Las terceras medallas de 1917 fueron a artistas de reconocido prestigio como José Gutiérrez Solana, Julio García Condoy, Daniel Vázquez Díaz o Federico Marés, entre otros (*La Vanguardia*, 21-06-1917, p. 9).

Ese mismo año de 1917 el joven artista llega a Granada para ocupar su plaza de profesor de dibujo. Enseguida, por intermedio de su amigo y compañero de estudios, el joven escultor Juan Cristóbal, se hace un hueco entre los habituales del Centro Artístico Literario y Científico, la principal sociedad cultural de la ciudad. Allí conocerá, al año siguiente a un joven poeta llamado Federico García Lorca que acude a leer unos poemas de su primera publicación: *Impresiones y paisajes*. Libro que poco después le dedica a Lanz: "A mi querido amigo Hermenegildo que posee un espíritu admirable de hombre rudo y sentimental y que tendrá un (?) cuando dé a luz sus trabajos estupendos sobre el Albaycín".



Autocartoon de Hermenegildo Lanz-en karikatúra.

Granadako kultur giroa eta El Rinconcilloko tertulia

Arte Zentroa, espainiar kultura guztia bezala, ezkutuko eta ez hain ezkutuko gatazka betean zegoen, zaharraren eta berriaren artean. Granadako kultu elkarteak hartuta zuen immobilismo zaharkituari ez zitzaizkion bat ere gustatzen gazteagoen planteamendu sozial eta estetiko berriak. Hain zuzen, gazteotako batzuek hitz egiteko biltzea erabaki zuten, ideia eta proiektu berriak eztabaidatzeko eta aurkezteko. Alameda kafetegiaren txoko batean geratu ziren, musika-boskote baten jokalekuaren atzean. Horregatik, El Rinconcillo izena eman zioten tertulia horri. Ziurrenik, 1920 baino lehen sortu zen.

Lanz berehala sartu zen Granadako kultur bizitza errotik irauliko zuten intelektual eta artisten talde horretan. Orkestra txikiak bere eguneroko saioa amaitzean, abian jartzen zen tertulia. Dena ez zen norberari eta kulturak eta arteak Granadan bizi zuen egoerari buruz hitz egitea; probetxu-zentzu handiz, onartuz gero berehala gauzatzen ziren ekintzak proposatzen zituzten. Hasierako animatzaileak bi ziren: batetik, Francisco Soriano Lapresa abokatu eta politikoa; obesitatea tartean 1934an hilko zen; bestetik, Ramón Pérez de finiezina, whiskyaren eta ingeles poeta erromantikoen ezagutzaile fina, zeinak harro kontatzen baitzuen nerabetan heresia zela eta Malagako jesuita-eskolatik bota zutela. Ohiko parte-hartzaileen artean, honako hauek: José Fernández Montesinos, filologoa eta, gerora, Estatu Batuetan irakasle; haren anaia Manuel, sendagile eta politikari sozialista, García Lorcaren arreba Concharekin ezkondua eta 1936an fusilatua, Granadako alkate karguan ziharduela; Melchor Fernández Almagro, kazetaria, historialaria eta antzerki-kritikaria, izatez kontserbadorea baina García Lorcaren lagun mina eta babeslea Madrilen; Ángel Bar-

El ambiente cultural granadino y la tertulia de El Rinconcillo

El Centro Artístico se encontraba, como toda la cultura española, sumergida en una soterrada, y no tan soterrada, lucha entre lo viejo y lo nuevo. La sociedad cultural granadina estaba copada por un rancio inmovilismo al que no le gustaban nada los nuevos planteamientos sociales y estéticos de los más jóvenes. Precisamente un puñado de ellos decidirá reunirse para conversar, para discutir y presentar nuevas ideas y proyectos, en un rincón del Café Alameda, detrás de donde actuaba una orquesta de cinco músicos. Debido a ello, la tertulia, que debió crearse antes de 1920, recibió el nombre de El Rinconcillo.

Madrilera itzuli ondoren, Saturnino Callejaren (1853-1915) argitaletxerako egin zituen lehen marrazkiak. Idazlea, pedagogoa eta editorea bera, haurrentzako literaturan eta pedagogiko liburuak ziren bere jardunaren ardatza, eta zeregin garrantzitsua aitortzen zion ilustrazioari. 1928 urtera arte jarraitu zuen hantzean eta zuzendari artistiko izatera iritsi zen.

Argitaletxean jasotzen zuen soldata ez zenez nahiko, Madrilgo aldizkari ilustratuetako askotan kolaboratzen hasi zen: *Nuevo Mundo* (1908tik), *Por esos mundos* (1910etik), *La Esfera* (1914tik), *La Ilustración Española y Americana* (1915), *Blanco y Negro* (1917), *Los lunes de El Imparcial* (1921), *Buen Humor* (1921), *Estampa* (1927). Orobat, herri-literaturako bilduma batzuetarako ilustrazioak egin zituen: *El Cuento Semanal* (1911), *El libro popular* (1913), *La novela de bolsillo* (1914), *Los Contemporáneos* (1915), *La Novela Semanal* (1921), *La Novela de Hoy* (1922). 1930an *Ahora* egunkarian kolaboratzen hasi zen.


Aldizkari eta bilduma horiek guztiek izan zuten tirada handia, eta publiko handiak ezin hobeki ezagutu zuen haren obra, umorismoz, sentsualitatez, dramatismoz nahiz publizitateko senez josia, kasuan kasuko hedabidearen arabera. Bartolozziren umorismoa haren belaunaldi osoaren identitate-zeinua da ia, munduari barre egiteko modu berri bat, zentzugabearen eta gainezkako irudimenaren artean, zalantzarik gabe, Pomboko hierarka eta belaunaldi osoaren aita espiritualak, Ramón Gómez de la Serna, inspiratua.

Bartolozzi como dibujante e ilustrador

Tras el regreso a Madrid, realiza sus primeros dibujos para la editorial de Saturnino Calleja (1853-1915), escritor, pedagogo y editor, centrándose en la literatura para los niños y los libros de pedagogía, concediendo a la ilustración un papel preponderante. En ella estará hasta 1928, llegando a ser su director artístico.

Como el sueldo que cobra de la editorial no es suficiente va a comenzar a colaborar en muchas de las revistas ilustradas de Madrid: *Nuevo Mundo* (desde 1908), *Por esos mundos* (desde 1910), *La Esfera* (desde 1914), *La Ilustración Española y Americana* (1915), *Blanco y Negro* (1917), *Los lunes de El Imparcial* (1921), *Buen Humor* (1921), *Estampa* (1927). También participa en ilustraciones para colecciones de literatura popular como *El Cuento Semanal* (1911), *El libro Popular* (1913), *La novela de bolsillo* (1914), *Los Contemporáneos* (1915), *La Novela Semanal* (1921), *La Novela de Hoy* (1922). En 1930 comienza a colaborar en el diario *Ahora*.

Todas ellas revistas y colecciones de gran tirada, lo que va a hacer que el gran público conozca perfectamente su obra, plagada de humorismo, sensualidad, dramatismo o sentido publicitario según el medio en que se publican. El humorismo de Bartolozzi es una seña de identidad de casi toda su generación, es una nueva forma de reír el mundo, entre lo absurdo y la imaginación desbordada que, sin duda, está inspirada por el jerarca de Pombo y padre espiritual de todos ellos, Ramón Gómez de la Serna.



Publizitate-iragarkia. Anuncio publicitario.



Cartel para Baile de Máscaras-entzako kartela.

Horri guztiari kartelgile moduan egin zuen lana gaineratu behar zaio. Bereziki interesgarriak izan ziren eta jende ugari jarraitu zituen –zenbaitetan, polemika gurutzatuen artean– hark Arte Ederretako Zirkuluaren mozorro-dantzarako urteroko lehiaketetan, Madrilgo inauterietako ekitaldi nagusienetako batean, izandako parte-hartzeak. Ohiko parte-hartzaile izan zen, halaber, José Francés espainiar karikaturagileen belaunaldi berriaren miresle sutsu, idazle eta kritikariak antolatzen zituen umorista-aretoetan.

Bartolozzi, Madrilgo antzerkigintzan eszenografo

Ziur aski, Parisen zela Europako antzerki-giro berriak ezagutuko zituen; handik itzuli eta gutxira, bere anaia Benitoren batera, Alejandro Miquisek (Anastasio Anselmo González sendagile, antzerki-kritikari eta dramagileak erabilitako izengoitia) gerora Teatro de Arte (1908-1911) deituko zuen proiektuarekin harremanetan sartu zen. Ondoren drama-tesuak irudiztatu zituen, batik bat *Por esos mundos* aldizkarian. Haren marrazkietan jada hasia zen agertzen elementu eszenografiko posibleen garapena, eta azkenean alor horretan guztiz sartu zenerako entsegu gisa balio izan zioten.

Hasi, bere lagun eta kolaboratzaile batekin hasi zen, Francisco López Rubio marrazkilariarekin, Madrilgo Fontalba antzokian. Nolanahi ere, aldi horretan, 1926an Valle Inclánek eta Espainiako antzerkigintzaren berritzaileak, Cipriano Rivas Cherif zuzendariak, zuzendutako Cántaro Roto talde esperimentalarekin kolaborazioa izan zen interesgarriena. Valle-Inclánen *Ligazón*, *Auto para siluetas* obraren eszenografia egin zuten eta Moratínen *La comedia nueva* o *El café* lanarena, galiziar dramagilearen zuzendaritzapean. 1926ko abenduan antzestu ziren biak, Madrilgo Arte

A todo ello hay que añadir su labor como cartelista, siendo especialmente interesantes y muy seguidas por el público, en ocasiones con polémicas cruzadas, sus participaciones en los concursos anuales para el Baile de Máscaras del Círculo de Bellas Artes, uno de los actos centrales del carnaval madrileño. Será un asiduo a los Salones de Humoristas que organiza el escritor y crítico de arte José Francés, ferviente admirador de aquella generación de caricaturistas españoles.

Bartolozzi como escenógrafo en el teatro madrileño

Al poco de su vuelta de París, donde sin duda conoció los nuevos ambientes teatrales europeos, se pone en contacto, junto con su hermano Benito, en el proyecto que Alejandro Miquis (seudónimo utilizado por el médico, crítico teatral y dramaturgo Anastasio Anselmo González) bautizará como Teatro de Arte (1908-1911). Participa posteriormente en la ilustración de textos dramáticos, principalmente en la revista *Por esos mundos*, donde en sus dibujos aparece ya un desarrollo de posibles elementos escenográficos que le servirán como ensayo cuando al fin entre de lleno en ese campo.


Comienza haciéndolo con su amigo y colaborador, el dibujante Francisco López Rubio, en el Teatro Fontalba de Madrid, aunque lo más interesante va a ser su colaboración en 1926 con el grupo experimental El Cántaro Roto, dirigido por Valle-Inclán y el renovador de la escena española, el director Cipriano Rivas Cherif. Llevan a cabo la escenografía de la obra *Ligazón*, *Auto para siluetas*, de Valle-Inclán, y de *La comedia nueva* o *El café*, de Moratín, dirigida por el dramaturgo gallego, representadas ambas en diciembre de 1926 en el nuevo teatrillo del Círculo de Bellas Artes de Madrid. El acceso a Rivas Cherif, es seguro que se produce a través de Carmen Eva Nelken, más conocida por su seudónimo de Magda Donato, su compañera sentimental desde 1914.

Ederretako Zirkuluaren antzokitxo berrian. Rivas Cherifekin harremana, ziurrenik, Carmen Eva Nelkenen bitartez suertatu zen. Magda Donato izengoitiaz ezagunagoa, Bartolozziren bikotekidea zen 1914 urteaz geroztik. Rivas Cherifekin hark bere lehen antzerki-taldea, Teatro de la Escuela Nueva (1920-1921), sortu zueneko garaietatik zeraman kolaboratzen.

Ondoren, jada bakarka, Bartolozzi Irene López Herediaren konpainia berrirako hasi zen lanean, baina eszenografo lanetan arrakasta handiena Jacinto Grau-ren *El señor de Pigmalión* obrak eman zion. Madrilen 1928an antzeztu bazen ere lehen aldiz, askoz ere lehenago argitaratu zen, 1921an. Grauk kalbario luzea izan zuen aurretik Espainian estreinatu zedila lortzeko. Aldiz, Charles Dullinek 1923an estreinatu zuen Parisko Théâtre de l'Atelier antzokian, Antonin Artaudekin eszenan, eta Karel Capek 1925an, Pragako Antzerki Nazionalarekin. *Farsa Tragicómica de hombres y muñecos* azpiizenburuarekin, Pigmaliónen konpainia aurkeztu zuten; sabeliztunen errege moduko bat, bere panpina guztiekin. Panpinak hain dira perfektuak, Pigmalionentzat parte berdinetan direla maitagarri eta beldurgarri, bereziki Pomponina panpina, zeinak erabat maiteminduta baitu. Azkenean, panpinak bortizki matxinatuko dira beren egilearen aurka. Bartolozziren lana berritzailea eta ausarta zen, besteak beste Ballets Russes konpainiak markatutako bideek iradokia, eta prentsak abegi beroa egin zion. Madrilgo marrazkilari maiteena, arrakastako eszenografo bihurtu zen hala. Jarraian Rivas Cherifen talde esperimental berriarekin hasi zen kolaboratzen. El Caracol izenarekin, Rex areto txikian zuen egoitza. Jean Cocteau-ren *Orfeorako* dekoratuak eta figurinak diseinatu zituen, eta, gutxieneko agertokiak zailtasunak ezarri bazizkion ere, irtenbide bikaina eman zion.

Ella llevaba colaborando con Rivas Cherif desde los tiempos en que este fundó su primer grupo teatral, el Teatro de la Escuela Nueva (1920-1921).

Ya en solitario, trabaja para la nueva compañía de Irene López Heredia, pero su gran éxito como escenógrafo acontece con *El señor de Pigmalión*, de Jacinto Grau, estrenada en Madrid en 1928, pero publicada mucho antes, en 1921. Grau arrastró sobre sí un largo calvario hasta lograr ese estreno en España, pese que en 1923, Charles Dullin la había estrenado en el Théâtre de l'Atelier de París, con Antonin Artaud en escena, y Karel Capek, con el Teatro Nacional de Praga en 1925. Subtitulada *Farsa tragicómica de hombres y muñecos*, presenta a la compañía de Pigmalión, una especie de rey de los ventrilocuos, con todos sus muñecos. Estos son tan perfectos que Pigmalión los adora y los teme por igual, especialmente a la muñeca Pomponina de la que está enamorado. Los muñecos acabarán rebelándose violentamente contra su autor. El trabajo de Bartolozzi es novedoso y atrevido, sugerido entre otros por la línea de los Ballets Rusos, acogéndolo la prensa con entusiasmo. El dibujante preferido de Madrid, se convierte así en escenógrafo de éxito. Seguirá colaborando con el nuevo grupo experimental de Rivas Cherif, El Caracol, alojado en la pequeña Sala Rex. Diseña el decorado y los figurines para *Orfeo*, de Jean Cocteau, y pese a las dificultades de un escenario mínimo, lo resuelve con brillantez.



Escenografía para *El Señor Pigmalión*-entzako eszenografía, acto 2. ekitaldia, 1928.

Rivas Cherifekin kolaboratzen jarraitu zuen. Hura Margarita Xirgúren konpainiaren literatura aholkularia zen, nahiz eta, egiaz, zuzendari artistiko zebilen. Rivas Cherifek Madrilgo antzerkigintzaren molde zaharrak hausten zituzten eszenografoak bilatzen zituen. Bartolozzirekin ez ezik, nabarmengarriekin jardun zuen: Sigfrido Burmann, Manuel Fontanals eta Fernando Mignoni, kasu. Madrilgo Teatro Español antzokian izan zuen lehenengo emandietako batean, Bartolozzi Benito Pérez Galdós-en *Fortunata y Jacinta* dekoratuz arduratu zen. 1930eko abenduan, jada Teatro Pinocho antzerkiaren abenturari ekin ziola, Federico García Lorca-en *La zapatera prodigiosa* obraren eszenografiari heldu zion Bartolozziki. Margarita Xirgúren Compañía Dramática Española taldeak estreinatu zuen. García Lorcak xehetasun guzti-guztiak mimatzen zituen, hasi aktoreen antzezpenetik eta eszenografia eta figurinetaraino. Beraz, ziurrenik, Bartolozziki egileari jarraikiz prestatuko zituen.

Bartolozziki berebiziko arrakasta lortu zuen, halaber, Ramón del Valle Inclán-en *Farsa y licencia de la reina castiza* obrarako egindako eszenografiarekin. Ikusmin handia zegoen obraren inguruan, Primo de Rivera jeneralaren diktadura osoan egon baitzen zentsuraren debekupean (1923-1930). Horrez gain, Valle-Inclán García Lorca bezain arretatsua zen eszenaratzearen xehetasun guztietan: haren obra idatzian jasotako hainbat oharretan jada agertu ohi ziren. Madrilgo Teatro Muñoz Seca antzokian antzeztu zuten lehen aldiz, 1931ko ekainean. Irene López de Herediaren konpainiaren esku geratu zen estreinaldia, nahiz eta Rivas Cherifen nahia bere konpainiak, alegia, Margarita Xirgúrenak, antzez zezala izan.

Seguirá su colaboración con Rivas Cherif, asesor literario, aunque realmente ejercía de director artístico, de la compañía de Margarita Xirgú. Rivas Cherif busca escenógrafos que rompan los viejos moldes de la escena madrileña, junto a Bartolozzi lo harán algunos de los más importantes: Sigfrido Burmann, Manuel Fontanals o Fernando Mignoni. En una de sus primeras representaciones en el Teatro Español de Madrid, Bartolozzi se encarga de los decorados de *Fortunata y Jacinta*, de Benito Pérez Galdós. En diciembre de 1930, cuando ya Bartolozzi ha emprendido su aventura del Teatro Pinocho, acomete la escenografía de *La zapatera prodigiosa*, de Federico García Lorca, estrenada por la Compañía Dramática Española de Margarita Xirgú. García Lorca cuidaba con mimo todos los detalles, desde la actuación de los actores hasta la escenografía y los figurines, por lo que Bartolozzi los hizo, sin duda, siguiendo las indicaciones del autor.

Otro de los éxitos apoteósicos de Bartolozzi fue la escenografía para *Farsa y licencia de la reina castiza*, de Ramón del Valle Inclán. Era una obra muy esperada pues la censura había prohibido su estreno durante toda la dictadura del general Primo de Rivera (1923-1930). Además, Valle-Inclán era casi tan meticuloso como García Lorca en todos los detalles de la puesta en escena, detalles que ya solían aparecer en sus múltiples acotaciones en la obra escrita. Se estrenó en el Teatro Muñoz Seca de Madrid en junio de 1931, por la compañía de Irene López de Heredia, pese a que Rivas Cherif había intentado que la llevara a cabo su compañía, la de Margarita Xirgú.

David Velak Bartolozziri buruz idatzitako tesian ez da oharrik gabe geratzen Bartolozziren jardun eszenografikoa hiru lan jakin horietan –Graurena (1928), García Lorcarena (1930) eta Valle-Inclánena (1931)–, non Espainiako hiru egileok, molde desberdinen bitartez baina antzeko oinarri batekin, aktorea eta obraren dramaturgiaren zentzua bera «txotxongilotu» baitzuten, European ere gertatzen ari zen bezala. Gogoan izan behar dugu Bartolozziki, ikusiko dugun moduan, 1929ko abenduan sortu zuela bere txotxongilo-antzerkia, Teatro Pinocho.

El señor de Pigmalión, La zapatera prodigiosa eta *La reina castiza* lanek trilogia berezia eratzen dute Salvador Bartolozziren eszenografo-ibilbidean. Hiru obrak hiru urteko denbora-tarte batean estreinatu ziren Madrilgo antzertokietan eta kontzeptu plastiko berdintsuarekin ebatzi ziren. Aldagaiak aldagai, funtsean, panpinen fartsaren generoari egokitzen zaizkio eta Europako antzerkiaren barruan, hasi modernismotik eta abangoardietaraino, gertu den tradizio korronte batean sartu daitezke: txotxongiloen balio-handitzea, reteatralizazio izeneko korrontearen barruan jaiotako aukera ugarietako bat. Hiru fartson egileek txotxongiloarekiko interes horretan parte hartu zuten, betidanik izan duen balioa aitortuta: zentzu metaforikoa, patuak gizakiarengan sortutako ezintasunaren sinbolo gisa, eta izaera probokatzailer eta subertsiboa. (Vela, 1996, online doktore-tesia, II, 80. or.).

Bartolozziki ere seta berezia eskaini zion On Miguel Unamunoren *El otro* lanaren eszenografiari. 1932ko abenduan antzeztu zuten, Teatro Español antzokian, une horietan beharbada Espainiako eszenaren antzezle onenak zirenekin: Margarita Xirgú eta Enrique Borrás aktoreak.

No pasa desapercibido en la tesis de David Vela sobre Bartolozzi, su acción escenográfica en tres obras muy concretas de Grau (1928), García Lorca (1930) y Valle-Inclán (1931), donde los tres grandes autores españoles practican, de formas diferentes pero con un fondo similar, la “marionetización” del actor y del sentido mismo de la dramaturgia de la obra, tal como estaba sucediendo en Europa. Debemos recordar que Bartolozzi funda su Teatro Pinocho de títeres, tal como veremos, en diciembre de 1929.

El señor de Pigmalión, La zapatera prodigiosa y *La reina castiza* forman una particular trilogía en la trayectoria como escenógrafo de Salvador Bartolozzi. Tres obras estrenadas en el lapso de tres años en los escenarios madrileños y resueltas con un concepto plástico muy similar. Con distintas variantes, se ajustan esencialmente al género de la farsa de muñecos, y pueden incluirse en una tendencia de la tradición inmediata del teatro europeo, desde el modernismo a las vanguardias, de revalorización del títere, una de las diversas posibilidades surgidas en la corriente de la reteatralización. Los autores de las tres farsas participan de este interés por el títere, en el que reconocen sus valores tradicionales: su sentido metafórico como símbolo de la impotencia del ser humano ante su destino, y su carácter provocador y subversivo. (VELA, 1996, tesis doctoral en línea, II, p. 80).

Usó Bartolozzi también un especial empeño en la escenografía de *El otro*, de don Miguel Unamuno, en diciembre de 1932, en el Teatro Español, con Margarita Xirgú y Enrique Borrás, quizá los mejores actores de la escena española de esos momentos.

Espainiar dantzari handi biren ikuskizunak eszenaratzen ere lagundu zuen: Encarnación López «La Argentinita»-renak eta Antonio Mercé «La Argentina»-renak. Nabarmenezkoa da Santiago Ontañonekin batera gau-emanaldi berezi baterako egindako dekoratu bat: Teatro Español antzokian, 1933ko maiatzean, Rafael Albertik *La poesía popular en la lírica española* izeneko hitzaldia eman zuen, luxuzko parte-hartzaile batekin, *La Argentinita* bera, eta pianoan García Lorca zela.

Bartolozzi, haurrentzako idazle eta irudigile

Calleja argitaletxean guztiek egiten zuten denetik pixka bat. 1912an *Las aventuras de Pinocho* liburua argitaratu zuten: Saturnino Calleja sortzailearen seme eta Bartolozziren lagun on Rafael Callejak itzuli zuen Collodiren italiarazko testua, modu oso librean eta testua etxekotuz. Barruko irudiak Carlo Chiostrri italiararenak ziren, eta koloretako azala Salvadorrena. Alabaina, ez denez agertzen argitalpenaren urtea eta badakigunez hainbatetan berrargitaratu zela, guztietan data gabe, oso zaila da liburuari jarraipena egitea. Baliteke berrargitalpen horietakoren batean funtsezko aldaketak izana. 1915ean, sortzailea hil ondoren, haren semeek hartu zuten argitaletxearen gobernu eta zuzendari artistiko izateko izendatu zuten Bartolozzi.

1917an Bartolozzik *Cuentos de Pinocho* saila idatzi eta irudiztatu zuen. Berrogeita zortzi kontakizun ilustratu biltzen zituen, 1928ra arte, bi sailetan: lehenengoa, 1924 urtera artekoa, Pinotxo protagonista zuela, eta beste sail bat haren etsai Chapeterekin batera. Zalantzarik gabe, Chapete egiteko, Ingalaterrako Humpty Dumpty tradizionalean oinarritu zen, Lewis Carroll-ek *Ispiluan barrera* liburuan ezagun bihurtutako arrautza formako pertsonaia hartan. Bartolozzi. Bartolozziren Pinotxoak Collodiren pertsonaiaren lerro eskematikoei eusten die, baina ezer gutxi gehiagori:

También colaboró en la puesta en escena para espectáculos de dos grandes bailarinas españolas, Encarnación López, *La Argentinita*, y Antonia Mercé, *La Argentina*. Es de hacer notar el decorado que, junto a Santiago Ontañón, realizó en el Teatro Español para una velada especial, celebrada en mayo de 1933 en el Teatro Español, en la que Rafael Alberti pronunció la conferencia titulada *La poesía popular en la lírica española*, con la asistencia de Lujo de *La Argentinita* y de García Lorca al piano.

Bartolozzi como escritor e ilustrador infantil

En la editorial Calleja todos trabajan un poco en todo. En 1912 se publican *Las aventuras de Pinocho*, traducción muy libre y española de Rafael Calleja, hijo del fundador Saturnino Calleja y buen amigo de Bartolozzi, del texto italiano de Collodi, con las ilustraciones interiores del italiano Carlo Chiostrri y portada en colores de Salvador. El hecho de que no figure año de edición y el conocer que se hicieron múltiples reediciones, todas sin fecha, dificulta mucho el seguimiento de este libro, que es posible haya tenido cambios sustanciales en alguna de dichas reediciones. En 1915, tras la muerte del fundador, toman las riendas sus hijos que nombran a Bartolozzi, director artístico de la editorial.

En 1917 Bartolozzi escribe e ilustra la serie de sus *Cuentos de Pinocho* que contarán con 48 relatos ilustrados, hasta 1928, en dos series: la primera, hasta 1924 con Pinocho de protagonista y luego otra serie junto a su oponente, Chapete, indudablemente basado en el tradicional Humpty Dumpty inglés, el personaje con forma de huevo popularizado por Lewis Carroll en su *Alicia a través del espejo*. Bartolozzi. El Pinocho de Bartolozzi conserva las líneas esquemáticas del personaje de Collodi pero poco más:



Cuentos de Pinocho-ren ipuinak.
Pinocho Emperador,
1917.

García Padrinoren arabera (2002: 133), italiarraren obraren eta Bartolozziren Pinochoaren arteko aldea, hain zuzen, umorearen tratamendua da. Haren ustetan, Bartolozziren umorearen oinarrian egoera zentzugabeak, hizkera arrunta eta, batez ere, irakurlearekiko gogokidetasuna zeuden. Gogokidetasuna etengabeko apelazioen bitartez lortzen zuen. Eta irakurleari egindako apelazioetatik askok testuarterkotasuna zuten oinarri: molde klasikoko testuei egindako aipamen eta erreferentziak, baina asmo ironikoz erabiliak. Pasarte multzo batean, Bartolozzik beste egile batzuek sortutako abenturatan bilatu zuen inspirazioa: adibidez, Jules Verne (*Viaje de Pinocho al centro de la Tierra*), Jonathan Swift (*Pinocho en el país de los hombres gordos; Pinocho en el país de los hombres flacos*), Emilio Salgari (*Chapete, cazador de cabelleras*), H. G. Wells (*Chapete invisible*), eta A. Conan Doyle (*Pinocho, Sherlock Holmes*). Beste pasarte batzuetan leku exotikoetan girotzen zituen bere abenturak, Rudyard Kiplingek bere literaturan sortutako munduen antzera (*Pinocho en la India*), edo, bestela, betiko ipuinen ohiko elementuak eguneratzen saiatzen zen (García Padrino, 2002: 137-138 or.). (García de Toro, 2013, online).

Para García Padrino (2002: 133), la diferencia fundamental entre la obra italiana y el Pinocho de Bartolozzi reside precisamente en el tratamiento del humor. En su opinión, Bartolozzi recurrió a un tratamiento del humor basado en la presentación de situaciones absurdas, el empleo de un lenguaje coloquial y, sobre todo, en la complicidad con el lector, lograda a través de continuas apelaciones. Y muchas de esas apelaciones al lector se sustentaban en la intertextualidad: en las alusiones y referencias a textos de corte clásico, aunque utilizadas con intenciones irónicas. En un grupo de episodios, Bartolozzi se inspiraba en las aventuras creadas por autores como Jules Verne (*Viaje de Pinocho al centro de la Tierra*), Jonathan Swift (*Pinocho en el país de los hombres gordos; Pinocho en el país de los hombres flacos*), Emilio Salgari (*Chapete, cazador de cabelleras*), H. G. Wells (*Chapete invisible*), o A. Conan Doyle (*Pinocho, Sherlock Holmes*). En otro grupo de episodios, ambientaba sus peripecias en escenarios exóticos con tópicas reminiscencias a los mundos literarios creados por Rudyard Kipling (*Pinocho en la India*), o bien trataba de actualizar los elementos habituales de los cuentos tradicionales (García Padrino 2002: 137-138). (GARCÍA DE TORO, 2013, en línea)

Arrakasta hain izan zen handia, 1925 urtean *Pinocho* haur astekaria atera zutela. Salvadorren zuzendaritzapean, belaunaldi hartako idazle eta marrazkilari ugari bildu zituen berean. Nolabaiteko eros-ahalmena zuen publikoari zuzendutako aldizkari bat zen. Koloreak zuhurki eta sinpleki erabiltzen zituen, literaturako atalak zituen eta ebakigarri-jokoan eta lehiaketan atal batzuk, irakurlea fidelizatzen. Era berean, argitaletxearen haur argitalpen guztien erakusgarri moduan balio zuen, hala Espainian nola Latinoamerikan. Aldizkarian, nabarmentzekoa da *El cuento de Pinocho* izeneko atala. Txotxongilo-antzeko baten eta Pinotxo borradun baten marrazki bat zuen goiburuan, eta Magda Donatok, José López Rubiok, Antonio Roblese eta beste zenbaiten jardun zuten bertan. 358 zenbaki argitaratu ziren, baina Bartolozzi 120. zenbakira arte aritu zen soilik (1927ko ekaina). Bi anaia jabeen arteko tirabirak tartean, Bartolozzik, Calleja argitaletxearekin harremana eten, eta merkatu eta abentura berrietara jo zuen, batik bat, *Estampa* aldizkariaren argitaratzaileekin, Sucesores de Rivadeneyra argitaletxearekin. Aldizkari eredu berri bat zen, argazki eta ilustrazio grafiko ugariarekin, eta orri kopuru nabarmena eskaintzen zion emakumeari. Bai Bartolozzi eta bai haren bikotekidea ere, Magda Donato, garrantzizko kolaboratzaileak izan ziren. Hantxe hasi zuten *Aventuras de Pipo y Pipa* saila, pertsonaia berrieekin –haur bat eta txakurtxo eme bat–, eta 400tik gora faszikultatzen parte hartu zuten haiekin. Arrakasta berriz ere izan zen itzela, eta argitaletxeak erabaki zuen ipuin irudidunen bilduma bat ateratzea, Calleja argitaletxearen *Pinocho contra Chapeteren* formatu ia berarekin. Deskribatutako prozesuaren ondorioz, Teatro Pinocho antzerkia sortu zen berehala.

El éxito es tan grande que en 1925 se lanza el semanario infantil Pinocho que con dirección de Salvador, agrupará a un buen número de escritores y dibujantes de su generación. Es una revista dirigida a público con cierto poder adquisitivo, con una sabia y sencilla utilización del color, con secciones literarias y otras de juegos de recortables y concursos para fidelizar al lector. Asimismo servía como escaparate para todas las publicaciones infantiles de la editorial, tanto en España como en Latinoamérica. En ella destaca la sección de *El cuento de Pinocho*, presidida por un dibujo de un teatrillo de títeres y Pinocho con una estaca, en la que participarán Magda Donato, José López Rubio, Antonio Robles y otros. Se editarán 358 números, en los que Bartolozzi estará presente hasta el 120 (junio de 1927). Bartolozzi rompe con la editorial Calleja, debido a las desavenencias entre los dos hermanos propietarios, abriéndose entonces a nuevos mercados y nuevas aventuras, especialmente con la editorial Sucesores de Rivadeneyra, que edita la revista *Estampa*. Un nuevo modelo de revista con abundantes fotos e ilustración gráfica y con un destacado número de páginas dedicados a la mujer. En ella colaborarán con mucho peso tanto Bartolozzi como su compañera Magda Donato. Comienza allí su serie de *Aventuras de Pipo y Pipa*, nuevos personajes –un niño y una perrita– que participarán en más de 400 episodios por entregas. El éxito vuelve a ser enorme y la editorial decide sacar una colección de cuentos ilustrados con un formato casi idéntico al de Pinocho contra Chapete, de la editorial Calleja. El proceso descrito aboca a la creación inmediata del Teatro Pinocho.



Semanario infantil
Pinocho haurrentzako
astekaria, 1925.



Aventuras de Pipo y Pipa

Bartolozzi, Teatro Pinocho txotxongilo-antzerkiaren sortzaile

Ibilbide horretan guztian, berebiziko zeregina izan zuen Magda Donato bikotekideak. Ziurrenik berak aurkeztu zion Rivas Cherif eszenografo lanetarako. Eta ziurrenik alboan izango zuen, ipuin irudidunen sailtarako testuak zuzentzen eta ideiak ematen. Eta harena, berea edo biena izango zen Madrilen berriz haurrentzako txotxongilo-ikuskizunak jartzeko ideia, beraiek ekoitz zezaketen kalitate artistikoaz jarri ere.

Bide horretan aurretiazko urratsa, zalantzarik gabe, Bartolozziren ekoizpen berezi bat izan zen, oraindik aipatu gabea: trapuzko panpinen fabrikazioa. Luis de Galinsoga kazetariak horiei buruz idatzi zuen «Las esculturas de trapo de Salvador Bartolozzi» izenburuko artikulu batean:

Artista ez badago prest bere talentu sortzailea eta trebezia teknikoa zernahi gai eta materiari aplikatzeko eta horietan, espiritualtasun aire batez, hunkitzeko ahalmena txertatzeko eta, horrenbestez, baita artea bizitzaren agerpen guztietara eramatekoa ere; orduan, zaharkitutako artista izango da. (Blanco y Negro, 1926-05-02, 31. or).

Bere trapuzko panpinei esker aipamen eta sariak jaso zituen Dekorazio Arteen Erakusketa Nazional bitan, hala Madrilen nola Pariseko nazioartekoan, 1925ean. Bartolozzik arreta berezia eskaini zion Pinocho, Chapete, Pipo, Pipa eta haien lagun eta etsai guztiak antzezteko txotxongiloen fabrikazioari. Bartolozzik argi zeukan ezin zuela epelkerian, sentimentaltasunean eta epai moral eta pedagogikoetan erori. Haurrentzat egiten dituen argitalpenek markatutako irizpideei jarraitzen die, besterik gabe. Hala jaso zuen Antoniorroblesek estreinaldiaren aurreko artikulu batean, Bartolozziri eta haren panpinei egindako elkarrizketa batean:

Bartolozzi, creador del Teatro Pinocho de títeres

En todo este recorrido, su compañera Magda Donato tiene un papel relevantísimo. Ella fue la que le debió presentar a Rivas Cherif para su actividad como escenógrafo. E indudablemente ella estaría allí, a su lado, corrigiendo textos y dando ideas para las series de cuentos ilustrados. Y de él o de ella, o de los dos, saldría el emprender esa nueva aventura de recuperar para Madrid un espectáculo infantil de títeres, con la calidad artística que ellos podían producir.

Un paso previo ha sido sin duda, una de las producciones especiales de Bartolozzi, todavía no mencionada: la construcción de muñecos de trapo. Escribía sobre ellos el periodista Luis de Galinsoga en un artículo que titula “Las esculturas de trapo de Salvador Bartolozzi”:

El artista que no esté dispuesto a aplicar su talento creador y su destreza técnica a temas y a materias cualesquiera para infundirles, con un soplo de espiritualidad, la capacidad de emocionar estéticamente y, por ende, de llevar el arte a todas las manifestaciones de la vida, será un artista inactual. (Blanco y Negro, 02-05-1926, p. 31).

Con sus muñecos de trapo obtiene menciones y premios en Exposiciones Nacionales de Artes Decorativas tanto en Madrid como en la Internacional de París de 1925. Bartolozzi se aplica especialmente en la construcción de unos títeres que representan a Pinocho, Chapete, Pipo, Pipa y todos sus amigos y enemigos. Bartolozzi tiene bien claro que no puede caer en la ñoñería, el sentimentalismo y la sentencia moral y pedagógica. No hace sino seguir los dictados marcados en sus publicaciones infantiles. Así lo recoge Antoniorrobles en un artículo anterior al estreno donde entrevista a Bartolozzi y a sus muñecos:

Utikan literatura! —oihukatzen du Pinotxok, espantu handiak eginez—. Utikan literatura, haurrentzako dela jarri, eta gero helduei gustatu bai, baina hutsik gabe haur guztiak aspertzen baditu! Utikan filosofiak eta lirismo zaharkituak, hipokresiaz txepelkeriaren mozarropean ezkutatuta! Giñol honetan helburu bakarrari zor zaio dena. Horren aldean, jasanezina iruditzen zait beste guztia. Helburu bakarra umeei ondo pasa dezatela da, ondo pasa dezatela eta kitto! (*Crónica*, 1929-12-15, 19. or.).

Teatro Pinocho antzerkiak Gabon-eguneko arratsalderako iragarri zuen lehen emankizuna, baina muntaketa konplexuaren arazoak tartean, azkenean abenduaren 28an izan zen saioa, Inuzente Egunean, Madrilgo Teatro de la Comedia antzokian. *Rataplán-rataplán on una hazaña de Pinocho* obra aurkeztu zuen bertan: bi ekitaldiko komedia bat, bere ipuin irudidun arrakastatsuenetako batean oinarritua, non Perraulten pertsonaia klasikoak ere sartu baitzituen, adibidez, Bizar Urdin, Erpurutxo, Errauskine eta Txanogorritxu. Muntaketa benetan zen korapilatsua: eszena-ahoak 3x2 metro neurtzen zituen ia, eta 11-12 manipulatzailerak zeuden, apur bat eskarmentu gabeak behar bada, hitz-emaile batez eta panpinen sarrerak markatzen zituen sarrera-emaile batez lagunduak.

Jarraian beste lan batzuk iritsi ziren: *Pipo y Pipa contra el dragón*; *Luna lunera o cigüeñitas en la torre*, Elena Fortún idazle famatuarena; *En la isla embrujada*, Bartolozzi berarena; *Taholí, Taholá y el brujo Pipirigallo*, Pinocho astekarian Bartolozziren kolaboratzaile zebilen Enrique Castilloren. Lan horrekin eman zioten amaiera denboraldiari, 1930eko martxoaren 19an. Prohibituetan zehar biran joan ziren eta udan itzuli ziren Madrilera, Retiro parkean antzeztera.

¡Nada de literaturas! —grita Pinocho con grandes aspavientos—. ¡Nada de esa literatura que se llama infantil, que encanta a los mayores y aburre indefectiblemente a los pequeños! ¡Nada de filosofías ni lirismos anticuados, ocultos hipócritamente bajo la máscara de la ñoñez! En este guiñol todo debe responder a un objetivo único, al lado del cual todo me parece insoportable. Ese objetivo único es divertir a la chiquillería, pero nada más que divertirla. (*Crónica*, 15-12-1929, p. 19).

El Teatro Pinocho, tras anunciar su estreno para la tarde de Nochebuena, lo hace al fin por problemas del complicado montaje, el 28 de diciembre, día de Inocentes, en el Teatro de la Comedia de Madrid. Presenta la obra *Rataplán-rataplán o una hazaña de Pinocho*, comedia en dos actos basada en uno de sus cuentos ilustrados de mayor éxito, donde se da entrada a clásicos personajes de Perrault como Barba Azul, Pulgarcito, Cenicienta o Caperucita Roja. El montaje realmente es complicado, la bocaescena no anda lejos de 3x2 metros y los 11 o 12 manipuladores, quizá todavía un tanto inexpertos, son ayudados por un apuntador y por un traspunte que marca las entradas de los muñecos.

Seguirán otras obras como *Pipo y Pipa contra el Dragón*, *Luna lunera o Cigüeñitas de la torre* de la famosa escritora Elena Fortún, *En la isla embrujada* de Bartolozzi, *Taholí, Taholá y el brujo Pipirigallo*, de Enrique Castillo, colaborador de Bartolozzi en el semanario Pinocho, con la que darán fin a la temporada, el 19 de marzo de 1930. Empezarán gira por provincias y regresarán en el verano para actuar en el Parque del Retiro de Madrid.



Teatro Pinocho antzezlan, 1930.

Hurrengo denboraldia Teatro Español antzokian egin zuten, Margarita Xirgúren eta Rivas Cherifen konpainiaren egoitzan. Elkarrengandik gertu egoteak helduentzako txotxongilo bat egiteko ideia eman zien. Rivasek oso gogoko zuen asmo hori. Madrilgo hedabideetan Ramón del Valle-Inclánek obra bat prest zuela esatera iritsi ziren. Izenburua ere jarri zioten: *Los pitillos de su majestad* (ABC, 1930-11-27). Aurrerago, proiektuari buruzko are informazio gehiago eman zuten:

Botín, García Lorca, Alberti, estreinaldi garrantzitsuak agindu dituzte. Bartolozzi eta Rivas Cherifek, atrebentzia handiko bertio eszenikoen bitartez, ezagutzera eman nahi dituzte Valle-Inclánen esperpentoak, baita Apollinaire eta Jarruren giñol-komediak ere eta, azken batean, ikusle nahiz egileen interesa piztu nahi dute, modernismo ausartenaren antzezpen klasikoaren bitartez (ABC, 1931-02-11).

La siguiente temporada la emprenden en el Teatro Español, donde reside la compañía de Margarita Xirgú y de Rivas Cherif. Esa cercanía hace que se propongan nuevas aventuras de un guiñol para adultos con el que Rivas está entusiasmado. En la prensa madrileña se llega a decir que Ramón del Valle-Inclán ya tiene preparada una obra y se le da hasta título: *Los pitillos de su majestad* (ABC, 27-11-1930). E incluso más adelante aún se va más allá en ese proyecto:

Botín, García Lorca, Alberti, han prometido estrenos importantes. Bartolozzi y Rivas Cherif se proponen dar a conocer en versiones escénicas de gran atrevimiento los Esperpentos de Valle-Inclán, las comedias guiñolescas de Apollinaire y Jarry y suscitar, en suma, el interés de público y autores con representaciones clásicas del más aventurado modernismo (ABC, 11-02-1931).

Hirugarren denboraldia (1931-1932) oso laburra izan zen eta Irene López de Heredia-ren konpainiarekin lotutako antzoki batean egin zuten: Teatro Muñoz Seca. Laugarrenak (1932-1933), Avenida eta Beatriz antzokietan, txotxongilo-konpainiaren amaiera eta akto-re-antzerkiaren hasiera ekarri zuten.

1932. urte amaieran, Salvador Bartolozzi Avenida antzokian ezarri zuen bere Teatro Pinocho. Artigas-Collado konpainiaren egoitza zen, eta haiekin batera joan ziren gero Beatriz antzokira, 1933ko urtarrilaren 15ean. Horixe izan zen trantsizioaren aldia: urtarrila amaieran, Beatriz antzokiko aktoreek giñolak ordeztu zituzten Bartolozziren komedien antzepe-nean; orduan, Teatro Pinocho desagertu egin zen, eta Bartolozziren haur antzerkiak beste dimentsio bat hartu zuen. Ikuskizunaren eraldaketa tamainakoa izan bazen ere, Bartolozzi eta Magda Donatok giñolaren izaera osoari eustea lortu zuten hala literarioan nola plastikoa, eta horrekin batera lortu zuten, halaber, kartoizko panpinek itxuraz eskaini ezin ziezaieketen egonkortasuna.

Emaitza oso ona izan zen: azkenean jarraitutasun osoa lortu zuten, Pazko denboraldiaren mugak gaindituta eta, ondorioz, errepertorio askoz ere zabalagoa aurkezteko aukera izan zuten. (Vela, 1996, online doktore-tesia, III, 134. or.).

1933tik 1936ra bitartean Beatriz eta Cómico antzokietan jokatu zituzten beren haur-komediak. Horietako askotan Pitti Bartolozzi, Salvadorren alaba, eta Pedro Lozano, haren senarra, aritu ziren lanean, baina betiere Bartolozzi ezarritako mugak gordez.

La tercera temporada, 1931-1932 será muy breve en el Teatro Muñoz Seca, asociada a la compañía de Irene López de Heredia y la cuarta, 1932-1933, en los teatros Avenida y Beatriz supondrán el final de la compañía de títeres y el comienzo de las obras con actores.

A finales de 1932 Salvador Bartolozzi instala su “Teatro Pinocho” en el Avenida, sede de la compañía Artigas-Collado, con la que se trasladará desde el 15 de enero de 1933 al teatro Beatriz. Es la temporada de la transición: el guiñol será sustituido a finales de enero por la representación de las comedias de Bartolozzi por los propios actores de la compañía del Beatriz; el “Teatro Pinocho” desaparecerá entonces como tal, y el teatro para niños de Bartolozzi cobrará una nueva dimensión. Pese a esta importante transformación del espectáculo, Bartolozzi y Magda Donato lograron preservar en lo literario y lo plástico todo el carácter del guiñol, ganando además una estabilidad que al parecer los muñecos de cartón no podían ofrecerles. El resultado fue francamente positivo: lograron por fin una total continuidad, trascendiendo los límites de la temporada de Pascuas, con la posibilidad consiguiente de presentar un repertorio mucho más amplio. (VELA, 1996, tesis doctoral en línea, III, p. 134).

Del 1933 a 1936 representarán sus comedias infantiles en los teatros Beatriz y Cómico. Muchas de ellas contarán con las labores escenográficas de Pitti Bartolozzi, la hija de Salvador y de Pedro Lozano, su marido, pero siempre respetando las líneas establecidas por Bartolozzi.

Haurrentzako antzerkiaren komediek arrakasta handia izan zuten eta Gerra zela-eta eten ziren soilik. Josefina Díaz Artigasen eta Manuel Colladoren konpainiarekin zirenean Teatro Pinocho txotxongilo-antzerkitik aktore-antzerkira aldatzea, ziur aski, muntaketan arazo teknikoei zor zitzaien, askoz ere konplexuagoak baitira txotxongiloen kasuan. Litekeena da Artigasek eta Colladok Bartolozzi eta Magda Donato konbentzitu izana, aktoreekin antzeztuz gero errepertorioaren interpretazioa arinagoa eta abiltagoa izango zela. Antzezleei zaila egiten zitzaie panpinak eskuetan jantzi eta antzeztea.

Hizpidera ekarri behar dugu Adolfo Aznar zinemagile aragoarrak, Bartolozziren gidoiarekin eta haren begiradapean, martxan jarritako panpina bizidunen filma: *Pipo y Pipa en busca de Cocolín*. Filmaren ekoizpenean Salvador Gijón sartu zen. Gerora, ziurrenik bera izan zen Espainiako egile nagusia panpina bizidunen zinemaren barruan. Lan egitekotsua izan zen. Banan-banan, 15.600 fotograma ere zenbaterira iritsi ziren: 300 bat metro zeluloide guztira, hau da, 12 minutuko iraupena. Banaketa-arazoei Gerra Zibila lehertu zela gehitu behar zaie. Behin amaitu zenean, arazo berri eta harrigarriak agertu ziren. Bartolozzi erbestean zen, baina oztopo nagusia ez zen hori; izan ere, Teatro Beatriz konpainiak Bartolozziren lanak antzeztan jarraitu zuen beharrezko gerraostean. Ez, arazoa zen Piporenak egiten zituen panpinak paperezko txano bat zeramala. Eta, txano horretan, *Ahora* egunkari grafikoaren izenburua irakur zitekeela, Bartolozzi kolaboratzaile izan zuen egunkari horretaz baitzegoen egina. Kontserbadurismo moderatuko egunkari bat izan bazen ere, joera errepublikanoa agertu zuen beti. Zentsura krudela izan zen Adolfo Aznarrekin. Esan zioten filma proiektatu nahi bazuen egunkariaren izenburua ezabatu behar zuela, fotogramaz fotograma. Zuzendarriak, etsi-etsian, biltegi batean gorde zituen bilkari horiek. Ezen inoiz gehiago jakin filmaren inguruan. Hor nonbait hondoratu zen.

Las comedias de teatro infantil tuvieron un gran éxito y solo fueron interrumpidas por la Guerra. La razón del cambio del Teatro Pinocho de títeres al teatro de actores, que tuvo lugar con la compañía de Josefina Díaz Artigas y de Manuel Collado, se debió posiblemente a los problemas técnicos de los montajes, mucho más complicados en el caso de los títeres. Es muy posible que Artigas y Collado convencieran a Bartolozzi y Magda Donato de que interpretándolas con actores el repertorio ganaría en agilidad y en habilidad interpretativa. A los actores les resultaba difícil enguantarse los muñecos y actuar.

Hemos de mencionar la película de muñecos animados que el cineasta aragonés Adolfo Aznar emprendió con el guión y supervisión de Bartolozzi: *Pipo y Pipa en busca de Cocolín*. Para la producción del film se añadió Salvador Gijón, que será posteriormente el principal artífice del cine de muñecos animados en España. El trabajo fue intenso, se llegaron a contar 15.600 fotografías, uno a uno, que sumaban los 300 metros de celuloide, lo que suponía una duración de unos 12 minutos. A los problemas de distribución se añadió el estallido de la Guerra Civil. Una vez acabada esta surgieron nuevos y sorprendentes problemas. Bartolozzi estaba exiliado, pero el principal obstáculo no era ese, de hecho la compañía del Teatro Beatriz siguió representado las obras de Bartolozzi en la inmediata posguerra, sino que el muñeco que representaba a Pipo llevaba un gorro de papel. Y en dicho gorro se podía leer el titular del periódico con el que estaba confeccionado, el diario gráfico *Ahora*, en el que había colaborado Bartolozzi. Pese a que fue un periódico de moderado conservadurismo, siempre se había decantado por las posiciones republicanas. La censura fue cruel con Adolfo Aznar. Le dijeron que si quería que esa película se proyectase debía borrar fotograma a fotograma el título del periódico. El director, desesperado, guardó en un almacén aquellos rollos. Nunca más se supo de esa película. Se hundió por algún lugar (PÉREZ y HERNÁNDEZ, 1994, pp. 83-92).

Bartolozzi eta Magda Donato, Frantzia igaro ostean, Mexikon kokatu ziren eta han gogotsu eta elkartasunez hartu zituzten. Calleja argitaletxearen garaietatik zuten Bartolozzi-
ren ospearen berri. Arte Ederretako Institutu Nazionalak haurrentzako ikuskizun batzuen zuzendaritza agindu zien: esaterako, *La aventura fantástica de Cucuruchito* eta *El retablo de Maese Pedro*ren bertsio bat. 1950an hil zen, ezpainetako minbizia erreproduzitu baitzizaion.

Bartolozzi y Magda Donato, tras pasar por Francia, se establecieron en México donde fueron recibidos con entusiasmo y apoyo. La fama de Bartolozzi había llegado a ese país desde los tiempos de la editorial Calleja. El Instituto Nacional de Bellas Artes le encargó la dirección de algunos espectáculos infantiles como *La aventura fantástica de Cucuruchito* y una versión de *El retablo de Maese Pedro*. Moriría en 1950 tras la reproducción de un cáncer de labio.



Escena de la película de Adolfo Aznar-ren pelikularen eszena, 1936.

Bibliografía esencial del sobre Salvador Bartolozzi

BRAVO VILLASANTE, Carmen (1958), "Un nuevo concepto del cuento infantil: Bartolozzi y Elena Fortún", *El libro Español*, Noviembre 1958, pp. 585-590.

BRAVO VILLASANTE, Carmen y GARCÍA PADRINO, Jaime (1984). Homenaje a Salvador Bartolozzi. Asociación Española de amigos del IBBY, Madrid.

ESPINA, Antonio (1951). *Bartolozzi, prólogo a Salvador Bartolozzi. Monografía de su obra*. Editorial Unión, México.

GALINSOGA, Luis de (1926). "Las esculturas de trapo de Salvador Bartolozzi". *Blanco y Negro*, 02-05-1926, p. 31

GARCÍA DE TORO, Cristina (2013). "Los viajes de Pinocchio. Sus primeras andanzas en España". *Sendebarr* (Universidad de Granada) <http://revistaseug.ugr.es/index.php/sendebarr/article/view/653/1652> (consultado 13-04-2016).

GARCÍA PADRINO, Jaime (2002). "El «Pinocho», de Salvador Bartolozzi: un caso particular de intertextualidad". *Didáctica (Lengua y Literatura)*, 14, pp. 129-143.

LOZANO BARTOLOZZI, María del Mar (1974). "Salvador Bartolozzi". *Bellas Artes* 74, (Madrid, Dirección General Bellas Artes), pp. 17-22.

LOZANO BARTOLOZZI, María del Mar (2004). *Salvador Bartolozzi*. Prólogo en Salvador Bartolozzi, *Pinocho*. EDAF, Madrid.

PÉREZ, Pablo y HERNÁNDEZ, Javier (1994). "Adolfo Aznar o el sueño frustrado de un cine de animación español". *El Bosque* (Zaragoza), 7, enero-abril, pp. 83-92.

VELA, David (1996). *Salvador Bartolozzi (1881-1950). Ilustración gráfica. Escenografía. Narrativa y teatro para niños*. Tesis doctoral:

<http://www.cervantesvirtual.com/obra/salvador-bartolozzi-18811950-ilustracion-grafica-escenografia-narrativa-y-teatro-para-ninos--0/> [consultada en 10/04/2016]

VELA, David (2004). *El Teatro Pinocho de Salvador Bartolozzi (1929-1933)*. En AAVV, Títeres, Fundación Centro Etnográfico Joaquín Díaz - Ministerio de Cultura, Madrid.

VELA, David. Blog: <http://davidblog-cartoon.blogspot.com.es/>. Múltiples artículos sobre Salvador Bartolozzi. [consultada en 10/04/2016]

4.



Presència-ren azala, orain dela 70 urte Miguel Prietoren galdutako maleta baten berri eman zen lekua.

Portada de Presència donde se dio a conocer la aparición de una maleta de Miguel Prieto perdida hace 70 años.

MIGUEL PRIETO Errepublikaren giñola

Eta Rafael Diesteri
oroitzapena

Miguel Prieto (Almodóvar del Campo, Ciudad Real, 1907 – México Hiria, 1956) Francoren diktaduraren makineriak isilpean utzitako beste espainiar artista bat da. 1930eko hamarkadan margolaritzaren eta, batez ere, ilustrazioaren eta antzerkiaren alorretan izan zuen ibilbide nabarmena ezjakintasunaren ozeanoan galtzearekin egon da. Mexiko Hirian garaiz hil zelarik (1956ko abuztuaren 12an), ezin izan zuen Espainiara itzuli eta erbesteratutako beste kide batzuek bezala demokraziaren berpizkundera bizi. Ezin izan zuen fisikoki lagundu Espainiako II. Errepublikan kulturagintzaren arloan egin zuen lan guztia berreskuratzen. Garai hartan ez zen izan Miguel Prietoren esku hartzerik gabeko ekimen intelektualik, ez artean ez politikan. Erakusketa honetan, haren ahalegin handienak ardaztu zituen zereginetako bat jaso nahi izan dugu: txotxongiloekin egin zuen lana. Txotxongilo batzuk, kultura eta hezkuntza sustatzeko bitarteko gisa hasi eta, azkenik gerra zibilean bukatu zuen prozesuak aurrera egin ahala, faxismoaren aurkako propaganda-ren eta askatasunaren zerbitzura jarri zirenak.

MIGUEL PRIETO El guiñol de la República

Con un recuerdo a
Rafael Dieste

Miguel Prieto (Almodóvar del Campo, Ciudad Real, 1907 – México DF, 1956) es uno más de los artistas españoles silenciados por el engranaje de la dictadura franquista. Su notable trayectoria en los campos de la pintura y, sobre todo, de la ilustración y el teatro, durante la década de 1930, han estado a punto de quedar sumergidos en el océano de la ignorancia. Su temprana muerte en México DF, el 12 de agosto de 1956, impidió su regreso a España y asistir, como otros compañeros de exilio, al renacimiento de la democracia. No pudo contribuir con su presencia física a la recuperación de su amplia labor cultural durante la II República española, donde no hubo empresa intelectual en la que Miguel Prieto no estuviese involucrado, tanto en el arte como en la política. Su presencia en esta exposición quiere dejar constancia de una de las tareas en las que más empeño y esfuerzo dedicó: su trabajo con los títeres. Unos títeres que comenzaron como medio de apoyo a la cultura y la educación y que fueron poniéndose, conforme avanzaba el proceso que acabó en la guerra civil, al servicio de la libertad y de la propaganda contra el fascismo.

Urteetan zehar, hainbatetan aurkitu dut haren izena García Lorca, Alberti nahiz Rafael Diestren txotxongilo-antzerkiei buruzko monografia garrantzitsutan. Miguel Prietoren aipamena laburra zen beti. Baina liburu gehiegitan errepikatzen zen. Askotariko gertaerak gogoratzen ziren, eta zenbait egilek gurutzatzen edo nahasten zituzten. Berak taularatu zuela Albertiren fartsa politikoen ikuskizuna, edo García Lorcaren *El Retablillo de don Cristóbal*. Berak fabrikatu zituela txotxongilo-antzerkia, dekoratuak eta txotxongiloak, eta berak animatu zituela, emaztearekin eta zenbait lagunekin batera. Antzerkia eta kultur-etxeetan eman zituela saioak, baina baita plaza, ospitale, eskola eta gerra-fronteetan ere, lubakien atzean hain justu. Eta hori guztiori, margolari eta marrazkilari jardueran bertan behera utzi gabe. Miguel Prieto Antzerkiaren Kontseilu Zentraleko kide izan zen. Errepublikaren gobernuaren antzerki-politikaren ardatz horretan, Giñolaren ardura zegokion; hala, kulturaren instantzia gorenenek aintzat hartutako lehen txotxongilolari espainiarra izan zen.

Oraindik ez dakigu nola iritsi zen Miguel Prieto txotxongiloetara. 17 urterekin Madrilén finkatu zen, aitaren baimenez, eta bere kasa Prado museoaren koadroetako kopiak egiten hasi zen, aldi berean Victorio Macho eta Julio Prat eskultoreen estudioetan ikasten zebilela (Perujo, 2007, 421. or.). 1932ko urtarrilean hemeziti olio-pinturen erakusketa nabarmengarria aurkeztu zuen Madrilgo Ateneoan eta hurrengo urtean berriz egin zuen erakusketa bat leku berean. Manuel Abril eta Francisco Aguirre idazle eta kazetariak mantxatar gaztearen agerpen artistikoaren berri eman zuten. Errepublika ezarri zenetik, Miguel Prieto ageriko joera errepublikano eta sozialista zuten beste artista eta idazle batzuekin harremanetan zen. 1933ko abenduan idazle eta Artista Iraultzaileen Erakusketan parte hartu zuen –Frantzian sortutako elkarte bat, Madrilén María Teresa Leónnek eta Rafael Albertik sustatu zuten, 1932an

Baina proiektua bertan behera geratu zen; izan ere, 1975ean berriz zen Tozerrekin batera Bartzelonan. Apirilaren 23an *La leyenda de San Jorge y el Dragón* obraren aurkezpenean jardun zuten biek, Palau de la Diputació jauregian. Otalek, Dragoia manipulatzeko; Tozerrek, berriz, Sant Jordi zalduna. Biek borroka bortitz bati ekin zioten eta horren dokumentu bisual zoragarria geratu zaigu (NO-DO Artxiboa, 1719 zk., 1976/01/05). Tozer jaunaren tailerlean ere ezarrita zegoen borroka hori; ikaslea oldartu egiten zitzaion.

Eta H.V.Tozerren txotxongiloak, hain zuzen ere, ez daude hor. Eszenatokian beren ezaugarri mekaniko eta ikusgarriak aurkeztera mugatzen dira, gehienera ere, ipuin bat irudiztatzen. Tozerrek badaki, jabe da eskulangile ona dela, eskulangile ezin hobea, esango nuke nik, baina ez dela antzerki-gizona eta, beraz, ez duela inoiz txotxongilo-antzerkirik egin. Ni saiatu nintzen harekin, eta ezin izan nuen, edo hobe esanda, ez zidan utzi; hortaz, antzerkiaren bideari tailerretik kanpo jarraitzea erabaki nuen. Hau 1975eko maiatzean gertatu zen. (Otal, d/g, eskuz idatzitako karpeta beltza, Grupo-Taller de Marionetas-en oroitzapenak, 6. or.).

Otal talde libertarioetan engaiatuta zegoen, etxe okupatueta bizi zen, eta kaleko antzerkia egin nahi zuen, «gerrilla-antzerkia». Tozer jaunaren pentsamoldetik oso urruti guztia. Tailerreko zenbait ikaslek jarraitu egin zioten, baina gehienak Tozerrekin ikastera itzuli ziren hurrengo urtean. Pepe Otal ez zen inoiz itzuli, beste planeta batean zegoen ordurako. Baina bere oharretan, Don Rufo Aguanafa piano-jotzailearen txotxongiloaren argazki baten alboan, zera idatzi zuen: «Piano-jotzailea, gure betiereko irakasle eta maisu H.V. Tozerren txotxongiloa» (Otal, d/g, eskuz idatzitako karpeta beltza).

Pero el proyecto debió de hundirse porque en 1975 se encuentra otra vez en Barcelona junto a Tozer. El 23 de abril de ese año actúan ambos en la presentación de *La leyenda de San Jorge y el Dragón* en el Palau de la Diputació. Otal manipula el Dragón y Tozer, al caballero Sant Jordi. Ambos emprenden una feroz batalla de la que queda un documento visual extraordinario (*Archivo Nodo*, n 1719, 05/01/1976). Esa batalla está establecida también en el taller del señor Tozer, su alumno se le rebela.

Y es precisamente ahí donde no están las marionetas de H.V. Tozer. Solamente se limitan a presentar en un escenario sus cualidades mecánicas y espectaculares, y todo lo más, a ilustrar un cuento. Tozer lo sabe, se da cuenta de que es un buen artesano, un perfecto artesano, diría yo, pero que no es un hombre de teatro, y por tanto nunca ha hecho teatro de marionetas. Yo lo intenté con él y no pude, mejor dicho, no me dejó, por lo que decidí seguir el camino del teatro fuera del taller. Esto ocurría en mayo de 1975. (OTAL, s/f, carpeta negra manuscrita, memorias del Grupo-Taller de Marionetas, p. 6).

Otal se encontraba enrolado en grupos libertarios, vivía en casas ocupadas y quería hacer teatro de calle, “teatro de guerrilla”. Todo muy lejano de la forma de pensar del señor Tozer. Le siguen unos cuantos alumnos del taller, aunque la mayoría volverían a cursar estudios con Tozer al año siguiente. Pepe Otal nunca volvió a seguir sus clases, estaba ya en otro planeta. Pero en sus propios apuntes, junto a una foto de la marioneta del pianista Don Rufo Aguanafa, escribe: “El pianista, marioneta de H.V. Tozer, nuestro eterno profesor y maestro” (Otal, s/f, carpeta negra manuscrita, p. 11).

1975ko maiatz hartantxe, txotxongilo erraldoekin ikuskizun bat prestatu zuten Bellaterrako Unibertsitatean egindako kataluniar poesia-errezital handi baterako: *La leyenda del Conde de Barcelona (La Vanguardia, 1975-05-16, 29. or.)*. Garai haietan, edo uda hartan bertan Bread and Puppet taldea ezagutu baino apur bat beranduago, jada antzezten zituzten lan txiki batzuk kaleetan: *La Reina Loba, El Circo Loco, Juan sin miedo* eta *La lámpara de Aladino*.

Ese mismo mes de mayo de 1975 crean un espectáculo con marionetas gigantes para un gran recital de poesía catalana que se celebra en la Universidad de Bellaterra, *La leyenda del Conde de Barcelona (La Vanguardia, 16-05-1975, p. 29)*. Por aquellos entonces, o poco después de conocer al Bread and Puppet, ese mismo verano, ya representaban en las calles unas cuantas pequeñas obras: *La Reina Loba, El Circo Loco, Juan sin miedo* y *La lámpara de Aladino*.



Danzas de la muerte, ca. 1980.
Foto Jesús Atienza-ren argazkia.

Nova Canço Catalana musika-mugimenduko kideekin harremanak zituzten. Folkaren eta pop-rockaren arteko musikari eta abeslari urratzaileak ziren: adibidez, Oriol Tramvia, Pau Riba eta beste batzuk. Espainian aire zabalean egindako lehen kontzertura joan ziren, Canet-Rockera. Ekitaldiak prentsa erreakzionario guztia astindu zuen, hondartzan milaka gazte erdi biluzik edaten eta urrumaka erakutsi osten. Berreskuratze-bidean zegoen askatasun giro horretan, tailerreko kideak *Ajoblanco* aldizkari alternatiboaren postuaren ondoan kokatu ziren. Urte haietan argitalpenak Espainia osoko gazteen arreta bereganatua zuen. Europako parte handi batean zehar bidaiatu zuten, eta urtez urte Avignongo *off-off* delakora itzuli ziren; alegia, kalera. Baina han Italiako, Frantziako, Alemaniako eta abarreko lokaletan antzezteko eskaintzak egiten hasi zitzaizkien. Behar-beharrezkoarekin soilik bidaiatzen zuten, kutxa bat denentzat, espagetiak jateko eta ezer gutxi gehiago. Garagardoetara eta txirrietara lagunek gonbidatzen zituzten. Kalean antzeztu zuten *Aleluya*, Bread and Puppeten *Halleluyah*-n inspiratuta. Espainia demokraziarako trantsizio-aldi gogorra ari zen bizitzen (Franco diktadorea 1975ko azaroan hil zen), eta kaleetan handiak ziren asaldura eta poliziaren errepresioa. «Gerrilla-antzerkia»-ren teknikak baliatu zituzten: azkar muntatu, oso lan laburrak antzeztu, 10-15 minutu artekoak, eta muntatu bezain azkar jaso, polizia iritsi baino lehen. Zentro psikiatrikoetara joan ziren eta fabriketan langileen itxialdiak babestu zituzten, adibidez, Motor Ibérica enpresaren gatazka, arazo luze eta konplexuenetako bat urte nahasi haietan, zeinetan demokrazia eraiki behar baitzen, frankismoaren hondar suntsitu baina iraunkorretatik abiatuta.

Lehen talde haren ostean, 1976an, Balboa kaleko lokal batean finkatu zen Otal; zehazki, La Barceloneta portu-auzoan, eta bere inguruko jarduera sozial eta kulturaletan parte hartu zuten han. Hantxe ere bigarren talde bat agertu

Se relacionaban con la cultura de la nueva canción catalana, entre el folk y el pop-rock, músicos y cantantes transgresores como Oriol Tramvia, Pau Riba y otros. Acuden al primer gran concierto al aire libre que se celebra en España, el Canet-Rock, que conmocionó a la prensa reaccionaria al mostrar cómo sobre la arena de la playa miles de jóvenes bebían y se arrullaban semidesnudos. En ese ambiente de libertad que se recuperaba, los del Taller se colocan con sus marionetas junto al puesto de la revista alternativa *Ajoblanco*, por aquellos años foco de atención juvenil en toda España. Viajarán por buena parte de Europa, acudirán año tras año al off-off de Avignon, es decir la calle. Pero allí ya comienzan a ofrecerles actuaciones en locales italianos, franceses, alemanes, etc. Viajan con lo justo, con una caja común que les permite comer espaguetis y poco más. A las cervezas y los porros les invitan sus amigos. Representarán en la calle su *Aleluya*, inspirado en el *Halleluyah* del Bread and Puppet. España vive un duro período de transición a la democracia (en noviembre de 1975 muere el dictador Franco), con mucha agitación en las calles y con mucha represión policial. Emplean tácticas de “teatro de guerrilla”: montar rápidamente, representar obras muy cortas, de entre 10-15 minutos y recoger tan rápidamente como montaron, antes de que llegue la policía. Acuden a centros psiquiátricos o van a apoyar el encierro de obreros en las fábricas, como el conflicto de la empresa Motor Ibérica, uno de los más largos y complejos de aquellos años tan revueltos, donde había que construir la democracia partiendo de los restos ruinosos pero perennes del franquismo.

Tras la primera formación, Otal se asienta en 1976 en un local de la calle Balboa, en el barrio portuario de La Barceloneta, donde participan en las actividades sociales y culturales de su entorno. Allí surge una segunda formación entre la que se encuentran marionetistas que luego serán tan importantes como Jordi Bertrán, Carles Cañellas o Jordi Pinar. Allí se acercarán

zen eta gerora munta handiko txotxongilolariak izango ziren zenbait bildu ziren bertara: Jordi Bertrán, Carles Cañellas eta Jordi Pinar, kasu. Eta beste hainbat gerturatu ziren, batzuk denbora laburrerako, beste batzuek egonaldia luzatu zuten. Horien artean, ezinbestekoa da Jesús Atienza argazkilaria aipatzea: tailerraren jardueraren ikusizko notarioa izan da gaur egun arte. Nabarmentzekoa da tailerrak Bartzelonako Güell Parkean egin ziren Jardunaldi Libertarioen esparruan izandako esku-hartzea. Ekimenak nazioartean sona handia zuten parte-hartzaileak bildu zituen, esate baterako, Frantziako 68ko maiatzeko burua, Daniel Conh-Bendit. 1979an, Bertránek eta Cañellasek taldea utzi ondoren, Teo Escarpa eta Luis Fellini sartu ziren eta tailerraren aro bikainenetakoa hasi zen. Txotxongiloak egiteko ikastaroak irakatsi zituzten, ehunka maisu-maistra prestatu zituzten orduko Pedagogia Berritzeko Mugimenduen uda-eskoletan, hala Kataluniako probintzietan nola Zaragozan, Huescan eta Albaceten. Zirko- eta kabaret-ikuskitzuna antzestu zituzten, Rambletan; gero Plaça del Pi enparantzan ezarri ziren. Baina ospea *El Apocalipsis según San Juan* lanaren ekoizpenak ekarri zien. Harrigarria da zein zaila den zirkuitu komertzialetatik at mugitzen diren konpainien lanei data jartzea. Jesús Atienza argazkilaria dioenez, Ricard Salvatek zuzendutako Sitgeseko Antzerki Jaialdiaren ezezkoa jaso ondoren –Kataluniako jaialdi garrantzitsuenetakoa, uztailean eгина; antzerki ausartenaren eta esperimentalenaren nazioarteko lagin bat aurkezten zen hor–, Bartzelonako Nazioarteko Argazkilaritza Zentroaren ekitaldi aretoan estreinatu zuten, eta hori 1981ko udazkenean gertatuko zen ziurrenik. Esandakoa bat dator, gutxi gorabehera, Pepe Otalek makinaz idatzitako agiri batean jasotakoarekin. Agiri horretan tailerraren 1975tik 1982ra bitarteko historia berrikusten du. Datu adierazgarriena zera da: 1982an Charlevillen aurkeztu zutela, eta halaxe da, hiru urtean behingo edizioetan izandako konpainiak begiratzen baditugu (ez zen jaialdirik egin ez 1983an, ez 1984an), Grupo Taller de

otras muchas personas, unos permanecen corto tiempo y otros alargan su estancia, entre las que es preciso señalar al fotógrafo Jesús Atienza que será el notario visual de toda la actividad del Taller hasta los tiempos actuales. Es de señalar la intervención del Taller en el marco de las Jornadas Libertarias que se produjeron en el Parque Güell de Barcelona, con la asistencia de grandes figuras internacionales como el líder del Mayo francés, Daniel Conh-Bendit. En 1979, tras el anterior abandono del grupo por parte de Bertrán y Cañellas, se incorporan Teo Escarpa y Luis Fellini, dando comienzo a una de las épocas más brillantes del Taller. Imparten cursos de construcción de marionetas, formaron a cientos de maestros en las entonces Escuelas de Verano de los Movimientos de Renovación Pedagógica, tanto en las provincias catalanas, como en Zaragoza, Huesca y Albacete. Interpretan sus números de circo y cabaret en las Ramblas y luego se establecen en la Plaza del Pi. Pero su gran salto se producirá al producir la obra *El Apocalipsis según San Juan*. Resulta sorprendente lo difícil que resulta datar obras de compañías marginales que no se mueven en circuitos comerciales. Según cuenta el fotógrafo Jesús Atienza, tras ser rechazada en el Festival de Teatro de Sitges dirigido por Ricard Salvat –uno de los más importantes festivales de Cataluña, donde se presentaba una muestra internacional del teatro más atrevido y experimental–, que se celebraba en el mes de julio, el estreno se produjo en el salón de actos del Centro Internacional de Fotografía de Barcelona, y ello tuvo que suceder en el otoño de 1981. Esto coincide más o menos con un documento escrito a máquina por Pepe Ota que repasa la historia del Taller de 1975 a 1982. El dato más significativo es que se tuvo que presentar en Charleville en 1982, donde efectivamente, repasando las compañías presentes en las ediciones trienales (no hubo festival ni en 1983 ni en 1984), encontramos al Grupo Taller de Marionetas en la sección off (ver *Charleville... au fil de la marionnette*, 1985, p. 83). La obra presenta unas fantásticas



Pape Ota eta bere hezurdurenetakoa bat.
Pepe Ota y uno de sus esqueletos.
Foto Jesús Atienza-ren argazkia.



Figura de *El apocalipsis*-en txotxongiloa, 1981.
Foto Jesús Atienza-ren argazkia.




Figura de *El apocalipsis*-en txotxongiloa.
Foto Jesús Atienza-ren argazkia.

Marionetas taldea aurkituko dugu *off* sailean (ikus *Charleville... au fil de la marionnette*, 1985, 83. or.). Obran txotxongilo eta automata zoragarri eta beldurgarri batzuk aurkeztu zituen, aldekoak nahiz kontrakoak izan zituen testu eta dramaturgia batean txertatuta. Besteak beste, Xavier Fàbregas kritikari eta historialariak gaitzetsi zuen. Baina ikuskizuna oso deigarria zen, parte hartzen zuten izakiek antzezteko ahalmen handia baitzuten. 1983an jada Bartzelonako ikuskizunen sailean agertu zen (Institut del Teatre eta Quatre Gats), baita Europako herrialde batzuetako zenbait kontratatutako ere, eta 1984an jaialditan antzezten jarraitu zuten: adibidez, Arrivano dal Mare jaialdian, Cervian, eta azaroan Bartzelonako VI. Txotxongilo Jaialdian. Ondoren, taldea desegin zen, Teo Escarpa eta Fellini Marionetas La Universal sortzeko utzi baitzuten.

Otaletak bakarkako ibilbideari ekitea erabaki zuen, eta hala aurkeztu zituen *El Gran Teatro del Mundo*, Calderónen auto sakramentalaren bertsiopartikularra oso (1985); *Makoki Chow* (1987), eskularruzko txotxongiloekin, Gallardo eta Mediavillaren komiki basati eta ospetsuenaren gidoietan oinarritua, oso libreki, eta jada aipatutako *Cuento de madera* (1990). Baliabideetan aurrezten zuen, baina *Makokin* eta *Cuento de Maderan* laguntzaile bat behar zuen. Beste konpainia batzuetako lagunekin elkarlanean jardun zueneko garaia hasi zen orduan; adibidez, Xavier Lafita eta Pep Gómez (Teatre de Sac), Santi Arnal (Per Poc), La Fanfarrako lagunak eta azken horiek Bartzelonan zuten Teatre Malic antzokiak (ekoizpen ugari estreinatu zituzten hor). 1993an Bartzelonako Udalak Balboa kaleko tailerretik bota zuen, baina lokal berria eskaini zion Guardia kalean, Ramblen ondoan. Hara eraman zituen bere traste guztiak, bere txotxongilo eta munstro guztiak, bere ohe, liburu eta maitaleak, eta mila gauza gehiago, batzuk hemen aipaezinekoak.

y tenebrosas marionetas y autómatas que se engarzaban en un texto y una dramaturgia que tuvo sus defensores y sus detractores, entre estos últimos el crítico e historiador Xavier Fàbregas. Pero el espectáculo llamaba poderosamente la atención por la potencia teatral de los seres que intervenían. En 1983 ya encontramos su presencia en la cartelera barcelonesa (Institut del Teatre y Quatre Gats), así como algunos contratos en países europeos y seguirá todavía representándose en 1984 en Festivales como el de Arrivano dal Mare en Cervia y en noviembre en el VI Festival de Marionetas de Barcelona, tras el cual el grupo se disuelve al marcharse Teo Escarpa y Fellini para fundar Marionetas La Universal.

Otal decide emprender su carrera en solitario y presenta *El Gran Teatro del Mundo*, versión muy particular del autosacramental de Calderón (1985), *Makoki Chow* (1987), con títeres de guante, basada muy libremente en los guiones del cómic más salvaje y famoso de Gallardo y Mediavilla y el ya comentado *Cuento de Madera* (1990). Economiza medios, aunque en *Makoki* y en *Cuento de Madera* precisa del apoyo de algún ayudante. Comenzará entonces un tiempo en el que colabora con diferentes amigos de otras compañías como Teatre de Sac con Xavier Lafita y Pep Gómez, con Santi Arnal de Per Poc, con sus amigos de La Fanfarra y su Teatre Malic de Barcelona, donde se estrenaron buena parte de sus producciones. En 1993 el Ayuntamiento de Barcelona lo desaloja del Taller de la calle Balboa pero le ofrece un nuevo local en la calle Guardia, junto a las Ramblas. Allí trasladará todos sus enseres, todas sus marionetas, todos sus monstruos, su cama, sus libros, sus amantes y mil cosas más, algunas de las cuales no se pueden nombrar.

Azkenik, haren poltsikoko operen zikloa iritsi zen, Toni Rumbauren (Poltsikoko Operen Jaialdien zuzendaria, bertan estreinatu zituen operetako bi) eta Mariona Masgrauren laguntzaz, batik bat, ikuskizun hauen aholkularitzari eta zuzendaritzari dagokienez: *Rigoletto* (1996, eskularruzko txotxongiloak eta beste teknika batzuk), emanaldi garrantzitsuena Zaragozako Aljaferiako Tronuaren Aretoan eman zuen, 2003ko urtarrilean, tenore, baritono eta soprano batekin, operaren pieza batzuk interpretatzeko; *El holandés errante* (1998, hagaxka, haria eta beste teknika batzuk), Wagnerren operari buruzkoa; *Don Giovanni post-mortem* (2002, hagaxka, beste teknika batzuk), Don Juanen mitoaren autopsiari buruzko antzezpen ikusgarria, goma-aparrez egindako gorpu batekin irudikatua, eta barruan animalien benetako erraiak sartuta. Bertatik ateratzen ziren Don Juanen mamuak, hagaxka-txotxongilo moduan. Antzezlan arrakastatsua abeslari batzuekin egin zuen, Bartzelonako Medizina Errege Akademiaren anfiteatro anatomiko zaharrean, 2004eko Poltsikoko Opera Jaialdiaren barruan.

2000 urtean Pepe Otalek lankidetzak ekimen interesgarriak abiarazi zituen Helena Millánekin, Aragoiko Titeres de la Tía Elena konpainiaren zuzendariarekin: Zorrillaren *Don Juan Tenorio* bertsio bat egin zuten (2003), bost hari-txotxongilolariekin eta tailerreko kide batzuen parte-hartzearekin; Zaragozako Txotxongilo Parkearen Jaialdirako ikuskizunak sortu zituzten, adibidez, *La cabeza parlante* (2004, On Kixoteren Bartzelonako pasarteari buruz) eta *Marionetas del agua* (2004), pieza labur bat non, ilunabarrean, Helena eta Pepe iturri publiko batean murgiltzen baitziren, eta bertatik, kable eta poleen bitartez, txotxongilo erraldoi batzuk ateratzen ziren, hiru metro t'erdi luzeran, hori guztiori argiztapen erakargarriarekin, piroteknia zaratatsuarekin eta ijito-orkestra ozen baten interpretazioarekin; elkarlanean aritu ziren San Jorge gaztetan eta biluzik irudikatzen zuen txotxongilo erraldoi bat egiten, bost metroko

Vendrá, por fin, el ciclo de sus óperas de bolsillo, con la ayuda de Toni Rumbau (director de los Festivales de Ópera de Bolsillo, donde se estrenaron dos de ellas) y Mariona Masgrau, principalmente en el asesoramiento y dirección de los espectáculos: *Rigoletto* (1996, títeres de guante y otras técnicas), cuya representación más importante fue en el Salón del Trono de La Aljafería de Zaragoza, en enero de 2003, con la intervención de tenor, barítono y soprano interpretando algunas piezas de la ópera; *El holandés errante* (1998, varilla, hilo y otras técnicas) sobre la ópera de Wagner; *Don Giovanni post-mortem* (2002, varilla y otras técnicas), espectacular presentación de una autopsia del mito de Don Juan representado por un cadáver de gomaespuma de tamaño natural en el que se introducían vísceras reales de animales y de la que brotaban los fantasmas de don Juan en forma de marionetas de varilla. Su representación más lograda tuvo lugar con cantantes en el antiguo anfiteatro anatómico de la Real Academia de Medicina de Barcelona dentro del Festival de Ópera de Bolsillo de 2004.

En el año 2000 Pepe Otal comenzó una serie de interesantes colaboraciones con Helena Millán, directora de la compañía aragonesa Titeres de la Tía Elena: una versión de *Don Juan Tenorio* de Zorrilla (2003), con cinco marionetistas de hilo en el que colaboraban miembros del Taller; la creación de espectáculos para el Festival del Parque de las Marionetas de Zaragoza, *La cabeza parlante* (2004, sobre el episodio del Quijote en Barcelona) o *Marionetas del agua* (2004, breve pieza en la que Helena y Pepe, al caer la noche, se sumergían en una fuente pública de la que surgían, por medio de cables y poleas, unas grandes marionetas, de tres metros y medio de alturas, todo ello con sugerente iluminación, es truedosa pirotecnia y la actuación de una potente orquesta zingara; o su colaboración en la construcción de la marioneta gigante que representaba a un espectacular joven y desnudo *San Jorge*, de cinco metros de altura, que se estrenó



La autopsia de Don Giovanni-ren autopsia, 2002.
Foto Jesús Atienza-ren argazkia.

luzerakoa, eta 2006an estreinatu zuten, Zaragozan, Bartzelonako Focus enpresak San Jorge-ren eguna (Aragoiko zaindaria) ospatzeko antolatutako desfile deigarri batean.

2006an, halaber, bere lan landuenetako bat estreinatu zuten: *La divina comedia*. Eszenan Virgilio eta Dante zeuden: Otalen lagun Pep Gómezek antzezten zuen lehena, tunika beltzez, eta Otal berak bigarrena, tunika zuriz. Biak ala biak sarkastikoak, inprobisatzaileak eta errenazentisten apendizak, zirkuluz zirkulu paradisia, purgatorioa eta infernua ibiltzen. Eszenografiak behinola bezala aurkeztu ziren, margotutako paper-bilkari batean. Albert Tort albaitariak margotu zuen, ederki margotu ere. Otalen betiko lagun zen eta haren lan askotan izan zen kolaboratzaile: berak eman zizkion *Cuento de madera* obrarako arratoiak eta *Don Giovanni post-mortem* obrarako erraiak. Zurezko txotxongilo lauak, begien bistan mugitzen; ekaitza itxuratzeko XVI. mendean bezala astintzen diren itsas olatuak. Obra hori antzezten ari zenean, Infernua zela eta Paradisura itzultzeko bidea emango zion paper-bilkaria mugiarazi gabe, Pepe Otal bihotzekoak jota hil zen 2007ko abuztuan, 24tik 25era doan gauean. Virgilioren tunika zuriaz jantzita sartu zuten hilkutxan eta Espainiara eraman zuten Albaceten errausteko. Ehun emakumek eta lagun talde handi batek haren heriotza deitoratzen dugu.

durante un llamativo desfile, organizado por la empresa Focus de Barcelona, para celebrar el día de San Jorge, patrono de Aragón, de 2006 en Zaragoza.

En 2006 estrenó uno de sus trabajos más elaborados: *La divina comedia*. En escena estaban Virgilio, interpretado con túnica negra por su amigo Pep Gómez, y Dante, con túnica blanca, el mismo Otal. Ambos sarcásticos, improvisadores, aprendices de renacentistas, recorriendo de círculo en círculo el paraíso, el purgatorio y el infierno, escenografías presentadas como antaño en un rollo de papel pintado, excelentemente pintado, por el veterinario Albert Tort, amigo de siempre de Otal y colaborador en buena parte de sus obras: él le proporcionó las ratas para *Cuento de madera* y las vísceras para *Don Giovanni post-mortem*. Marionetas planas de madera recortada que se mueven a la vista, oleaje de mar que se hace oscilar como en el siglo XVI para figurar una tormenta. Interpretando esta obra, estando en el Infierno y no haciendo mover el rollo de papel que le permitiera regresar al Paraíso, Pepe Otal fallece de un fulminante ataque cardíaco en la noche que va del 24 al 25 de agosto de 2007. Es introducido en un ataúd con la túnica blanca de Virgilio y viajará a España para ser incinerado en Albacete. Cien mujeres y un nutrido grupo de amigos lloramos su muerte.



San Jorge, 2006, Zaragoza.
Foto Adolfo Ayuso-ren argazkia.



La Divina Comedia, Pep Gómez eta /y Pepe Ota, 2006. Foto Jesús Atienza-ren argazkia.

Zer geratzen da Otalengandik? Lan honetan erakutsitako maisu gehienengandik baino askoz ere gehiago. Pedro Naresek *Pep Ota, el viaje infinito* filmean egindako lan onaren berri emateko ohar batean, Toni Rumbau honako hau idatzi zuen:

Nire ustez Jordi Bertran da hura kokatzeko orduan zehatzena, esaten duenean hark sortutako tailerra izan zela bere lanik onena, bere giro irekiarekin, eta bai lagunei bai bertara hurbildutako guztiei agertzen zien prestutasunarekin. Horren frogagarri dira tailerra abiapuntutzat izan zuten txotxongilolari guztiak, eta gaur egun tailerra bizirik dela oraindik; izan ere, hil ostean ere, haren ondareak fruitu ematen jarraitzen du, gaur egungo Casa-Taller de Pepe Ota ekimeanean gauzatuta. (<http://www.titeresante.es/2012/03/07/pepe-otal-el-viaje-infinito-pelicula-de-pedro-nares/>, 2016-10-03an kontsultatua)

Hark txotxongilolaritzan egin zuen lana iradokizun egokien, berrikuntza tematikoen eta plastika eszeniko probokatzailen batuketak bat da. Eta inperfekzio dramaturgikoen eta gehiegizko inprobisazioen kenketa bat. Ez zuen inoiz izan enpresarik, haren konpainia mamua zen, noraezekoa, gizarte-segurantzarik eta Ogasunari ordainketarik gabea, zirkuitu komertzialen edo «prestigiotsuen» programatzaileek ahaztu eta gutxietsia. Ota guztian izan zen errebelde eta, bereziki, perfekzioaren aurka. Ezkutuan, miresten zuen perfekzioa (eta horregatik miretsi zuen beti Tozer ingeniaria), baina ikara bizi zion, ez ote zitzaion errotuko eta askatasunez gabetuko. Beharbada, aukeran, inperfekzioa maite zuen, inork ez zekizkion bere lan amaitugabeak kritikatu, batek daki. Pepek kaleko zaborretatik biltzen zituen materialak, eta gero bizi berria ematen zien tallerrean. Gorroto zituen entseguak; haren asmoa zen ideia, fresko eta iraultzaile, berehala hel zedila eszenara. Hala denbora gehiago zuen pipan erretzeko,

¿Qué queda de Ota? Mucho más que de buena parte de los maestros expuestos en este trabajo. En una nota que reseña el buen trabajo de Pedro Nares en su película *Pepe Ota, el viaje infinito*, Toni Rumbau escribía

Creo que Jordi Bertran es quién mejor da en el blanco a la hora de situar al personaje, al decir que su mejor obra fue el mismo taller que fundó con su ambiente abierto y su generosidad con los amigos y con cualquiera que acudiera a él. Algo que queda demostrado por todos los titiriteros que tuvieron el Taller como punto de partida y por la pervivencia actual del mismo, pues incluso tras morir, su herencia, encarnada en lo que es hoy la Casa-Taller de Pepe Ota, sigue dando frutos. (<http://www.titeresante.es/2012/03/07/pepe-otal-el-viaje-infinito-pelicula-de-pedro-nares/>, consultada en 10-03-2016)

Su obra marionetística es una suma de acertadas sugerencias, de innovaciones temáticas, de provocativas plásticas escénicas. Y una resta de imperfecciones dramaturgicas y de un exceso de improvisación. Nunca tuvo una empresa, su compañía era una compañía fantasma, errante, sin seguridad social, sin pagos a Hacienda, olvidada o vilipendiada por los programadores de los circuitos comerciales o de “prestigio”. Ota fue un rebelde en todo y especialmente contra la perfección. Admiraba en secreto la perfección (por eso admiró siempre al ingeniero Tozer) pero tenía pavor a que la perfección anclara en él y le robara su libertad. Quizá amara la elegida imperfección para que nadie pudiera criticar sus inacabados trabajos, quién sabe. Pepe recogía de las basuras de la calle materiales que luego empleaba en el taller y les daba nueva vida. Odiaba los ensayos, pretendía que la idea, fresca y revolucionaria, llegara a la escena de inmediato. Así tenía más tiempo para fumar en pipa, beber cerveza y encandilar a una muchacha que estuviera a tiro. Por eso, buena parte de la críti-

zerbeza edateko, eta jomugan zuen neskaren bat liluratzeko. Horregatik, kritika zorrotzenaren artean asko izan ziren, ondo pasa zutela aitortu arren, haren estreinaldiak birrintzen zituztenak. Zenbaitetan ez zitzairen arrazoirik falta eta hala aitortzen zuen Otalek berak. Zalantzarik ez da, ordea, haren irakasle-lanaren inguruan: irizpiderik, gusturik eta maniarik ezartzen ez duen maisua, ikasleari begiratu eta, oso txarra bada, ezer esaten ez dion, eta ona bada, noizean behin hurbildu eta hobetzeko ideia bat ematen dion maisua. 1986an, Tozer jaun zorrotzak, bere ikasle desobeditzaileari Malic antzokian egin zioten omenaldi batean, aitortu zuen Otalen prestakuntza-eskolatik Espainiako zortzi talde profesional eta Italiako bi atera zirela (makinaz idatzitako dokumentua, 1986-11-26). Orain zenbat izango? Hirurogei edo hirurogeita hamar talde akaso, inork ere ez daki ziur, zenbatzea izango da kontua. Are garrantzitsuagoa da galdetzea, zenbat aterako dira bihurtik aurrera? Zeren eta Pepe Otalen txotxongilo-tailerra bizirik baitirau, bere horretan oraindik, maisuaren espiritu inkonformista eta iraultzailea ere bizirik iraunarazten.

ca más estricta, aunque manifestaba haberlo pasado bien, pulverizaba sus estrenos. A veces con cierta razón, que el mismo Otal admitía. Lo que no cabe duda es de su labor de maestro, de maestro que no marca directrices, que no impone gustos ni manías, que mira cómo trabaja el alumno y si es muy malo, no le dice nada, y si es bueno, se acerca de vez en cuando y le da una idea de cómo hacerlo mejor. En 1986, el estricto señor Tozer reconoció, con motivo de un homenaje a su alumno díscolo en el Teatro Malic, que de la escuela de formación de Otal habían arrancado ocho grupos profesionales en España y dos en Italia (documento mecanográfico, 26-11-1986). A estas alturas, ¿cuántos son?, quizá sesenta o setenta grupos, nadie lo sabe con certeza, es cuestión de contar. Todavía más importante es preguntarse ¿cuántos van a salir a partir de mañana? Porque el Taller de Marionetas de Pepe Otal sigue vivo y sigue haciendo vivir el espíritu inkonformista y revolucionario del maestro.

Taller de Marionetas de Pepe Otal sortu zenetik izan da katedra ireki bat, alde guztietatik etortzen diren ehunka ikasleentzako zabalik dagoena. Horietako asko profesional prestigiotsuak dira gaur egun. Hori guztiori, gune berezi eta errepikaezin batean, sormeneko eta bizikidetzako espazio berdingabe batean: txotxongiloen artean espezializatutako irakaskuntza-zentro bat, argi eta garbi izaera soziala duena.

Printzipioa hauxe da: txotxongiloaren eta objektu-antzerkiaren munduari lotutako gaien azterketa eta ikerkuntza sustatzea; ezagutzak partekatu eta trukatu dituzten belaunaldi berriak prestatzea. Hori guztiori, esperimendazioari irekitako gune batean, aribidean eta sortze-bidean diren lanak erakutsiz, baina bazter utzi gabe lan finkatuak.

Ezarririk kanonez kanpo dagoen ekoizpen artistikoko zentro baten alde egiten dugu, txotxongiloen artean espezializatutako irakaskuntza zentro baten alde; txotxongiloa eta, batez ere, helduentzako txotxongiloa duintzearen alde egiten dugu, lengoia zabal eta aukerez bete baliatuta, arte eszenikoen aberasgarri. Gure asmoa ez da abentura komertzial bat aurkeztea, baizik eta abentura sozial bat, txotxongilo-antzerkiari, hiriri eta kale eta enparantzei lotua, txotxongiloaren jokaleku naturalizat bide publikoa aldarrikatuta. (Taller de Marionetas de Pepe Otal-en webgunea, 2016-03-10ean kontsultatua)


El **Taller de Marionetas de Pepe Otal** ha sido desde su creación una cátedra abierta a centenares de alumnos venidos de todas partes, muchos de ellos prestigiosos profesionales en la actualidad, todo ello en un lugar especial e irrepetible, un espacio único de creación y convivencia, un centro de enseñanza especializado en el arte de los títeres, con un claro carácter social.

El principio es promover el estudio y la investigación de las temáticas afines al mundo del títere y del teatro de objetos, formar nuevas generaciones que compartan e intercambien conocimientos. Todo ello en un lugar abierto a la experimentación, a la muestra de trabajos en proceso y propuestas emergentes, pero sin olvidar también obras consolidadas.

Apostamos por un centro de producción artística fuera de los cánones establecidos, un centro de enseñanza especializada en el arte de las marionetas, apostamos por dignificar el títere, y muy especialmente el títere de adultos, como un lenguaje amplio y lleno de posibilidades que enriquece las artes escénicas. Pretendemos representar no una aventura comercial, sino una aventura social ligada al teatro demarionetas, a la ciudad, a las calles y plazas, reivindicando el uso de la vía pública como escenario natural del títere. (Página web oficial del Taller de Marionetas de Pepe Otal, consultada en 10-03-2016)

Baliteke Peter Schumanek, zorionez bizirik Vermonten, antzeko zer edo zer egin izana; baliteke harena gehiago ere hedatu izana. Baina ez zen izan hobe, ezta garbiago ere.

Peter Schumann, gozosamente vivo en Vermont, ha hecho algo parecido, quizá con mayor difusión, pero no mejor, ni más puro.



Bibliografía esencial sobre Pepe Otal

AYUSO, Adolfo y MILLÁN, Helena (2001). *Historia y mecánica de la marioneta en España*, DPZ, Zaragoza, pp. 22-29.

BRANCO, Bàrbara (2003). "Poetes i titel·lares celebren l'equinocci de primavera". *Avui*, Cultura, 20-03-2003, p. XI.

CASTELLÓ, Sonia (1998). "Un Holandés errante con marionetas en el Malic". *La Vanguardia*, 05-12-1998, p. 48.

CERVERA, Marta (2004). "Las tripas de don Giovanni". *El Periódico*, 19-11-2004.

FONDEVILA, Santiago (1988). "Makoki y su tribu urbana saltan de las páginas de los tebeos al escenario del Malic este fin de semana". *La Vanguardia*, 22-04-1988, p. 50.

FONDEVILA, Santiago [s. F.] (1985). "Primer aniversario del Teatro Malic y estreno de *El gran teatro del mundo*". *La Vanguardia*, 29-11-1985, p. 34.

GIMÉNEZ, Dionisio (1982). "La calle sí que es nuestra". *Actual*, 15, 11-06-1982, pp. 47-52.

GUTIÉRREZ ALARCÓN, Demetrio (1972). "A La Mancha le ha salido un navegante solitario". *Arriba*, 05-03-1972.

JIMÉNEZ, Mar (2004). "Un món de titel·les". *Avui*, Forum 2004, 19-07-2004, p. 40.

MARTÍN, Josep A (1998). *El teatre de titelles a Catalunya*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Barcelona, pp. 141-142 (voz: "Otal Montesinos").

PORRAS, Francisco (1981). *Titelles teatro popular*. Editora Nacional, Madrid. pp. 395-396.

PUÉRTOLAS, Pere. "Pepe Otal en el Malic: Cuento de madera o De la vida de las marionetas y otras ratas". *La Vanguardia*, 11-04-1990, p. 39.

Rumbau, Toni (2007). "Pepe Otal". *Fantoches, arte de los títeres* (UNIMA España), 1, pp. 26-31.

Rumbau, Toni (2014). "La Casa-Taller de marionetas de Pepe Otal". *Fantoches, arte de los títeres* (UNIMA España), 8, pp. 11-19.

THEROS, Xavier (2007). "José Otal, maestro del arte de las marionetas". *El País*, 01-08-2007, p. 42.

XX. MENDEKO MAISUAK

Txotxongilo-antzerkia Espainian